1.- FUNDAZIOAREN JARDUERA

1.1. Sarrera

Ekainaren 2ko 9/2016 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioenak, 32. artikuluan ezarri zuenez, balantzeak, emaitza kontuak, memoriak eta irabazi asmorik gabeko erakundeentzat kontabilitate planak ezartzen dituzten gainerako dokumentuek osatzen dituzte fundazioen urteko kontuak.

Urteko kontuek unitate bat eratzen dute, eta argitasunez idatzi behar dira; horrez gain, fundazioaren ondarea, finantza egoera eta emaitzak modu leialean jaso behar dituzte.

Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, fundazioaren patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidaliko ditu urteko kontuak behar bezala sinatuta, gordailuan jasotzeko.

1.2. Datu orokorrak

Arabako Artium Fundazioa kultura fundazioa da. Haren eraketaren eskritura publikoa Vitoria-Gasteizen egin zen 2001eko otsailaren 16an, Bilboko Notarioen Elkargoko Manuel María Rueda Díaz de Rábago notario jaunaren aurrean (protokolo zenbakia: 748). Arabako Foru Aldundiak erabaki zuen Fundazioa eratzea,sortzaile bakar gisa, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 14ko 112/2000 Foru Dekretuaren bitartez.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko apirilaren 30eko Aginduaren bitartez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2001eko maiatzaren 29ko alean argitaratu zena, «Arabako Artium Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, F-98 erregistro zenbakipean. Agindu berean ebatzi zen aipatutako fundazioa, fundazioaren helburuak zirela medio, Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatuko zela, kultura, gazteria eta kirolen fundazioen sekzioan, hain zuzen ere.

Arabako Lurralde Historikoa da bere jarduketa eremu nagusia, estatutuen 3. artikuluaren arabera. Fundazioaren egoitza Gasteizko Frantzia kaleko 24an dago.

Hasierako hornidura ehun eta laurogei mila hirurehun eta hiru euro eta hirurogeita hiru zentimokoa (180.303,63 €) izan zen. Diru kopuru horren ordainketa agiri bidez frogatu zen erregistroko inskripzioaren espedientean, 404/1994 Dekretuaren 31.1.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Fundazioaren identifikazio fiskaleko kodea, Arabako Foru Aldundiak emana, G-01315530 da.

Fundazioaren telefono zenbakia 945 20 90 00 da. Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoaren webgunea www.artium.org da.

1.3. Jarduera nagusiak

Arabako Artium Fundazioa kultura fundazioa da, eta sorreran ezarritako helburu hauek ditu, estatutuen 4.artikuluak dioenez:

- Arabako Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa kudeatzea eta zuzentzea.
- Bere ondarearen parte diren eta kultur balioa duten ondasun higigarri eta higiezinak mantentzea, zaintzea, babestea eta zaharberritzea.

- Arte plastikoen gizarte-komunikazioa sustatu eta bultzatzea.
- Bildumak jendaurrean behar bezala erakustea, edonork ikusteko eta aztertzeko moduan, eta azterketa eta ikerketa lanak aldeztu eta sustatzea.
- Artium Zentro-Museoaren ondareko artelanen eta kultura-identitatearen ezagutza bultzatzea eta haien berri zabaltzea.
- Museologiako ikerketa-programak garatzea eta arlo horretako trebakuntza eta hobekuntza planetan parte hartzea.
- Lankidetza-harremanak ezartzea museoak kudeatzen dituzten beste fundazio eta erakunde batzuekin, unibertsitateekin, ikerketa zentroekin eta Espainiako nahiz atzerriko beste kultura erakunde batzuekin.
- Aurreko atalean aipatutako erakundeekin batera ekintzak garatzea.
- Bestelako jarduerak burutzea ondoko helburuekin: kultura-agerraldiak, hitzaldiak eta liburuen, katalogoen eta beste argitalpen batzuen edizioa sustatu eta gauzatzea; oro har, bekak eta dirulaguntzak ematea; eta antzeko beste jarduera batzuk, betiere Fundazioaren helburuekin bateragarriak badira.

Ekitaldian garatutako jarduerak zehaztasunez azaldu dira Memoria honen hasierako zatian.

2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Irudi zehatza

Urteko kontuak fundazioaren kontabilitate erregistroetan oinarrituz prestatu dira. 2018ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzerakoan errespetatu egin dira indarrean dagoen merkataritza legedia eta irabazteko xederik gabeko erakundeentzako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arauak eta entitate horien aurrekontu informazioaren gaineko arauak. Hala, ondarearen, 2018ko abenduaren 31ko finantza egoeraren eta data horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion jardueren emaitzen irudi zehatza erakutsi nahi da, eta hobeto aurkezte aldera zenbait birsailkapen ere jaso dira.

2017ko ekitaldiko urteko kontuak fundazioaren patronatuak onartu zituen 2018ko apirilaren 26an, kontuak eta Betean Auditoría S.L.P. enpresak egindako ikuskaritzaren txostenaren zirriborroa ezagutu ondoren.

2018ko ekitaldiko fundazioaren urteko kontuak fundazioaren patronatuko kideek egin dituzte, eta onesteko aurkeztuko dira; inolako aldaketarik egin gabe onartuko direla aurreikusi da.

2.2. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Funtzionamenduan dagoen entitatearen printzipioa betez egin ditu fundazioak bere finantza egoerak; izan ere, ez da eman hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion fundazioaren urteko kontuetan patronatuko kideek egindako estimazioak erabili ahal izan dira zenbaitetan bertan erregistratutako aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoren batzuk baloratzeko. Funtsean, honakoak dira zenbatespenak:

- Narriaduraren ondoriozko aktibo batzuen galerak.

- Aktibo material eta ukiezinen balio-bizitza.

Nahiz eta zenbatespen horiek aztertutako gertakarien gainean urteko kontu horiek egiteko unean zegoen informaziorik onena oinarri hartuta egin ziren, baliteke etorkizunean, hurrengo ekitaldi batzuetan aldatzera behartzen duten (gorantz edo beherantz) gertakariak egotea, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, zenbatespen-aldaketaren ondorioak aitortuz etorkizuneko galera eta irabazien kontuetan.

2.3. Informazioaren alderatzea

Indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorriz, Patronatuaren Batzorde Betearazlearen kideek aurreko ekitaldiko emaitzak aurkeztuko dituzte, emaitzen kontuko, eskudiruaren fluxuen egoerako eta balantzeko partida bakoitzarekin alderatzeko, baita 2018ko ekitaldiko zifrekin alderatzeko ere. Era berean, memoria honetan 2018ko ekitaldiari buruz ageri den informazioa 2017ko ekitaldiko informazioarekin aurkezten da, alderaketak egin ahal izateko.

Horri dagokionez, aipatu behar da irizpidea aldatu egin dela ekitaldiko soberakinari egotzitako subentzioen erregistroan. 2018ko ekitaldian emaitzei egotzi zaizkie ekitaldiko jarduera finantzatzen dituzten kopuruak, aurreko ekitaldietako ustiaketa defiziten finantzaketa kontuan izan gabe. Soberakin negativo horiek konpentsatzen dituzten Patronoek egindako transferentziei dagokien partea soberakin kontuari ezarri zaio zuzenean.

2.4. Partidak eta zenbait partidatan jasotako elementuak taldekatzea

Urteko kontuek ez dute jasotzen balantzean, emaitzen kontuan, ondare garbiaren aldaketen egoeran edo eskudiru fluxuen egoeran taldekatu behar izan den inongo partidarik.

Balantzeko partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik ere ez dago.

2.5. Kontabilitate-irizpideen aldaketak, kontabilitate-akatsak eta -zenbatespenak

2018an ez da aldaketarik egin kontabilitate irizpideetan, kontabilitate akatsetan edota zenbatespenetan.

3.- EKITALDIKO SOBERAKINA

En el ejercicio 2018ko ekitaldian ez da sortu banatzeko moduko soberakinik.

Emaitzaren aplikazio-proposamena honako hau da:

Banaketa-oinarria	2018	2017
Emaitza-kontuen saldoa	0,00	231.674,16
Guztira	**0,00**	**231.674,16**

Aplikazioa	2018	2017
Gerakinera (aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak)	0,00	231.674,16
Guztira	**0,00**	**231.674,16**

4.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

Urteko kontu hauen formulazioan kontabilitate arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak aplikatu dira, bereziki kontabilitate-printzipioak nahitaez betetzeari buruzkoak, lehentasunezko helburua baita fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta lortutako emaitzen irudi zehatza erakustea.

4.1. Ibilgetu ukiezina

Hasierako azterketaren ostean, ibilgetu ukiezina baloratzean kostua ken haren amortizazio metatua hartzen dira kontuan; baita, hala badagokio, erregistratu diren narriatzearen ziozko zuzenketen zenbateko metatua ere.

Aktibo ukiezinak bizitza erabilgarri mugatuko aktiboak dira eta, horrenbestez, sistematikoki amortizatzen dira aurreikusitako bizitza erabilgarriaren eta hondar balioaren arabera. Amortizatzeko aplikatu diren metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira eta, behar izanez gero, modu prospektiboan doitzen dira. Ekitaldia ixtean behintzat, narriatze-aztarnarik dagoen aztertzen da; eta horrela izanez gero, berriro eskuratu daitezkeen zenbatekoak zenbatu eta egin beharreko balio-zuzenketak egiten dira.

Narriatzearen ondorioz aktibo horien balio erregistratuan sortu ahal izan den edozein galera kontabilitatean jasotzen du Fundazioak; kontrapartida gisa emaitzen kontuko *Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza* epigrafea erabiltzen da. Ekitaldi honetan ez da onartu aktibo ukiezinen ondoriozko *Narriatzearen ziozko galera garbirik*.

Balantzearen pasiboan, *Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak* epigrafearen barruan aktiboan ageri diren erabilera eskubideen kopuru garbia jaso da. Emaitzetara eramatea biltegiratze hitzarmen bakoitzaren iraupenaren arabera egiten da.

Gainerako kasuetan, amortizaziora urtero egindako dotazioa kalkulatzeko metodo lineala aplikatzen da aktibo ukiezinaren bizitza aurreikusiaren arabera; informatikako softwarearen kasuan, lau urtekoa dela kalkulatzen da.

- Fundazioak honako hauek identifikatzen ditu ibilgetu ukiezinen ondasunen artean:

- Eskudiru-fluxuak sortzen dituzten ondasunak: zerbitzuen prestazioaren edo ondasunak entregatzearen bitartez merkataritza-etekina sorrarazi edo onura lortzeko helburua dute.

- Eskudiru fluxuak sortzen ez dituzten ondasunak: merkataritza-etekina sortzea ez beste helburu bat daukatenak dira, esaterako aktibo horiek eragiten dituzten fluxu ekonomiko-sozialak, komunitatearen onerako badira, hau da, zerbitzuen onura sozial edo potentzial bat

Eskudiru-fluxurik sortzen ez duen ibilgetua mantentzen du Fundaizoak bere aktiboan.

Fundazioak aktibo horien balio-narriadura egiaztatzen du soilik aktibo mota horien ohiko balio narriadura adierazleak existitzen direnean eta ez badaude izaera komertzialeko adierazleetan oinarrituta, baizik eta sorrarazten duten zerbitzu potentzialean.

4.2. Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala eskuratze-kostuaren, hau da, amortizazio metatuaren kostu garbiaren arabera baloratu da, izan diren narriatzearen ziozko galerak aintzat hartuta. Elementu bakoitza eskuratzeko ordaindu den prezioaz gain, eraikitzeko aldian zehar sortu diren finantza-gastuak ere sartzen dira kostuan, baldin eta horiek aktiboa eskuratzeari edo fabrikatzeari zuzenean egotzi ahal bazaizkio eta erabiltzeko moduan egoteko urtebete baino denbora luzeagoa behar badute. Ekitaldian ez da kontzeptu horren zenbatekorik aktibatu.

Elementu osoen ordezkapenak edo berritzeak, xede den ondasunaren bizitza baliagarria areagotzen duten zabalkuntza, modernizazio edo hobekuntza kostuak, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa, horiek guztiak higiezin-inbertsio edo ibilgetu materialaren zenbateko handiago gisa zenbatzen dira eta, ondorioz, ordezkatu edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Sortzapen printzipioa betez, mantentzeko, artatzeko eta konpontzeko aldian behingo gastuak egiten diren ekitaldiko kostu moduan egozten zaizkie emaitzei.

Fundazioak ez du aktibo-ondasunak desegin, kendu edo birgaitzeko asmorik. Horregatik, ez da aktiboan zenbatetsi etorkizuneko obligazio horiek estaltzeko baliorik.

Aktibo bat besterendu edo baliogabetzean lortzen den mozkina edo galera kalkulatzeko, aktiboaren salmentaren mozkinaren eta liburuetan duen zenbatekoaren arteko aldea atera behar da; emaitzen kontuan jasotzen da.

Amortizazioa kalkulatzeko metodo lineala aplikatzen da aktiboen eskuratze kostuan, ondoren hondar balioa kenduz. Aktibo materialak amortizatzeko urteko dotazioak kontrapartidarekin egiten dira emaitzen kontuan; funtsean, elementuei batez beste zenbatetsitako bizitza baliagarriaren urte-kopuruaren arabera zehaztu diren amortizazio-ehunekoak dira, honako honekin bat etorriz:

Deskribapena	Urteak	% Anual
Eraikinak	50	2,00%
Instalazio teknikoak	10	10,00%
Makineria	5	20,00%
Tresnak	10	10,00%
Beste instalazio batzuk	10	10,00%
Altzariak	10	10,00%
Informazio prozesuetako ekipoak	4	25,00%
Garraio-elementuak	4	25,00%

- Fundazioak honako hauek identifikatzen ditu ibilgetu materialeko ondasunen artean:

  - Eskudiru-fluxuak sortzen dituzten ondasunak: zerbitzuen prestazioaren edo ondasunak entregatzearen bitartez merkataritza-etekina sorrarazi edo onura lortzeko helburua dute.

- Eskudiru-fluxuak sortzen ez dituzten ondasunak: merkataritza-etekina sortzea ez beste helburu bat daukatenak dira, esaterako aktibo horiek eragiten dituzten fluxu ekonomiko-sozialak, komunitatearen onerako badira, hau da, zerbitzuen onura sozial edo potentzial bat.

Fundazioak eskudiru-fluxuak sortzen ez dituzten ibilgetuak ditu aktiboan.

Fundazioak gutxienez ekitaldi bakoitzaren itxieran ebaluatzen du bere ibilgetu materialaren balio-narriaduragatiko galeren zantzurik baden, eta galera horiek aktibo horien zenbateko berreskuragarria liburuetako balioa baino zenbateko txikiagora murrizten ote duten. Zantzuren bat egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria estimatzen da balio-narriaduragatiko balizko galeraren irismena zehazteko.

Kontabilitate-balio garbia balio berreskuragarria baino handiagoa bada, erregistratu egiten da ibilgetu materialaren elementu-balioaren narriaduragatiko galera. Balio berreskuragarria da haren arrazoizko balioari salmenta kostuak eta erabilpen-balioa kendutakoan ematen duen kopuru handiena.

Aurreko ekitaldietan aktibo batean aitortutako narriaduraren ondoriozko galerak itzuli egingo dira kopuru itzulgarriari buruzko aurreikuspenak aldatuz gero, aktiboaren balioa areagotuz; muga onbideratzea egin izan ez balitz aktiboak izango lukeen liburu-balioak ezarriko du.

Patronatuko kideen aburuz, aktiboen kontabilitate balioak ez du gainditzen horien balio itzulgarria; horrenbestez, 2018ko ekitaldian fundazioak ez du ibilgetu materialen narriaduraren ondoriozko galerarik erregistratu.

4.3. Ondare historikoko ondasunak

Ondare historikoko ondasunak esapidea Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean jasotako elementuei aplikatzen zaie. Komunitatearen ustez zaindu beharreko ondasunak dira, arrazoi artistiko edo kulturalak direla medio; ezin dira ordeztu, eta horixe da, hain zuzen ere, horrelako ondasunen ezaugarri nagusietako bat.

Fundazioak atal honetan jasotzen ditu Arabako Foru Aldundiko Bildumatik lagatako artelanen zenbatekoak eta fundazioarenak diren artelanen zenbatekoak, dohaintza eta erosketen bitartez jasotakoak. Dohaintzen kasuan, eta zuhurtziazko irizpidea aplikatuz, kontrapartida Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak ataleko balantze laburtuko pasiboaren partidan dago.

Las obras de arte que integran este apartado de Bienes del Patrimonio Histórico no se someten a amortización ya que se considera que su potencial de servicio es usado tan lentamente que sus vidas útiles estimadas son indefinidas, sin que las obras de arte referidas sufran desgaste por su funcionamiento, uso y disfrute.

Lehenago esan bezala, *Ondare Historikoko Ondasunak* epigrafearen barruan Arabako Foru Aldundiaren Bildumako artelanen hasierako lagapena ere kontuan hartzen da (Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren behin betiko lagapen akordioa, 2003ko apirilaren 15eko data duena), baita 2002-2018 aldian fundazioari lagatzeko Arabako Foru Aldundiak erositako artelanak ere.

Beste alde batetik, atal honetan fundazioaren artelanen balioa ere jaso da.

4.4. Finantza-tresnak

Fundazioak finantza-tresna bat onartzen du kontratu edo negozio juridikoaren xedapenen arabera haren nahitaezko atal bihurtzen denean.

Finantza-tresnak hasieran finantza-aktibotzat, finantza-pasibotzat edo ondare-tresnatzat onartzen diren unean sailkatzen dira, kontratuaren akordioaren funts ekonomikoaren eta finantza-aktibo, finantza-pasivo edo ondare-tresnaren definizioen arabera.

Fundazioak finantza-tresnak ezaugarri desberdinetan eta fundazioaren asmoei dagokienez sailkatzen ditu, hasierako aitorpen unean.

Finantza-aktiboak

Iraungi arte mantendutako inbertsioak hasieran arrazoizko balioan zenbatetsi dira; aurkakoa oso agerikoa den kasuetan salbu, transakzio-prezioa izango da, hau da, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean leporatu dakizkiokeen transakzio-gastuak; ondoren amortizatutako kostuari dagokionez zenbatetsiko dira, benetako interesaren metodoa erabiliz.

Hala ere, honako baldintzak betetzen dituzten finantza-aktiboak balio nominalaren arabera balioesten dira: interés tasa ezarrita ez badute, horien zenbatekoa amaitu egiten bada edo epe laburrean jasotzea espero bada eta eguneratzeagatiko ondorioa adierazgarria ez bada.

Finantza-aktiboei baja ematen zaie kontabilitatean haiekin zerikusia duten efektibo-fluxuak eskuratzeko eskubideak iraungi egin direnean edo transferitu egin direnean eta fundazioak adierazgarritasunez intsuldatu dituenean bere titulartasunpetik eratorritako arriskuak eta mozkinak.

Fundazioak gutxienez ekitaldi bakoitzaren itxieran ebaluatzen du bere finantza-aktiboen balio-narriaduragatiko galeren zantzurik baden, eta galera horiek aktibo horien zenbateko berreskuragarria liburuetako balioa baino zenbateko txikiagora murrizten ote duten. Zantzuren bat egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria estimatzen da balio-narriaduragatiko balizko galeraren irismena zehazteko.

Fundazioko patronatuaren kideen aburuz, aktiboen kontabilitate balioak ez du gainditzen horien balio itzulgarria; horrenbestez, 2018ko ekitaldian fundazioak ez du finantza aktiboen narriaduraren ondoriozko galerarik erregistratu.

Finantza pasiboak

Finantza-pasiboak, hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk barne hartuz, ez dira sailkatzen mantenitu gisa negoziatzeko, edo finantza-pasibo gisa, emaitzen kontuan aldaketekin arrazoizko balioarekin; hasieratik aitortzen dira arrazoizko balioarekin. Hasierako onarpenaren ondoren, kategoria honetan sailkatutako pasiboak kostu-amortizatuan baloratzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoaz.

Hala ere, honako baldintzak betetzen dituzten finantza-pasiboak balio nominalaren arabera balioesten dira: interes-tasa ezarrita ez badute, horien zenbatekoa amaitu egiten bada edo epe laburrean egitea espero bada eta eguneratzeagatiko ondorioa adierazgarria ez bada.

Fundazioak finantza pasiboa edo horren zati bat bajan ematen du, pasiboan jasotako obligazioa bete badu, edo pasiboan jasotako erantzukizun nagusitik legez dispentsatuta badago, dela prozesu judizialari jarraiki, dela hartzekodunaren bidez.

4.5. Jardueraren beraren ondoriozko kredituak eta zorrak

Erabiltzaileak, jardueraren beraren beste zordun batzuk, merkataritza-zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

Aitortzen diren unean balioesten dira balantzean, arrazoizko balioan; ondoren, amortizatutako kostuan balioesten dira, interes-tasa efektiboa erabiliz.

Hala ere, merkataritza-eragiketetako kredituak, gehienez urtebeteko iraungipena badute, eta ez badute kontratuko interes-tasarik, zenbatuko dira bai hasierako aitorpen-unean, bai ondoren, izendatutako balioagatik, betiere fluxuak ez eguneratzearen ondorioak esanguratsuak ez badira.

Aktiboaren periodifikazioak

Fundazioak ekitaldian ordaindutako gastuen sortzapena ondorengo ekitaldian sortuz gero, orduan epe laburreko aktiboen periodifikazioen kontuan jasoko dira, eta emaitzei egotziko zaizkie sortzapena sortu den ekitaldian.

Kaleratzeen ondoriozko kalte ordainak

Indarrean dagoen lan-araudiarekin bat etorriz, fundazioak kalte-ordainak ordaindu behar dizkie baldintza zehatzetan lan-harremanak bertan behera utzarazitako egoeran dauden langileei. Ez dago arrazoi objektiborik kontzeptu horrengatik hornidura bat kontabilizatzeko.

Zorrak epe laburrera, hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

Aitortzen diren unean balioesten dira balantzean, arrazoizko balioan; ondoren, amortizatutako kostuan balioesten dira, interes-tasa efektiboa erabiliz.

Hala ere, merkataritza eragiketetako kredituak, gehienez urtebeteko iraungipena badute, eta ez badute kontratuko interes-tasarik, zenbatuko dira bai hasierako aitorpen-unean, bai ondoren, izendatutako balioagatik, betiere fluxuak ez eguneratzeko ondorioak esanguratsuak ez badira.

Saldoen sailkapena, arruntak eta ez arruntak

Zorrak epe labur eta luzean sailkatzeko irizpidea hamabi hilekoa da, eta ezagutu bezain azkar kontabilizatuko dira.

Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

Atxikitako balantzearen epigrafe horrek kutxako eskudirua, bankuetako kontu korronteak eta aktiboen aldi baterako erosketa eta gordailuak ere hartzen ditu, betekizun hauek guztiak betetzen badira:

- Eskudiru bihur daitezke.
- Eskuratzean, gehienez hiru hilabeteko epemuga zuten.
- Ez dute balioa aldatzeko arrisku nabarmenik.
- Fundazioaren diruzaintzako kudeaketa-politika orokorrean sartzen dira.

4.6. Izakinak

Fundazioaren izakinak Artiumen dendako izakin komertzialei eta Artiumen argitaratutako katalogoei dagozkie. Aribideko produktuak ekitaldia ixterakoan jardun-zentro edo eraldatze- edo prestakuntza-fase batean dauden ondasun edo zerbitzuak dira, eta ez dira bukatutako produktuen kontuetan erregistratuta egon behar eta, gure kasuan, aribideko argitalpenen ekoizpen-kostuari dagozkio.

Artiumen dendako izakinak batez besteko prezio haztatuko sistemaren bitartez balioesten dira, eta ekoizpen propioko katalogoak ekoizpen-kostuan zenbatzen dira (ekoizpen-kostuari dagokionez, izakinak balioesteko lehengaien eta bestelako materia kontsumigarrien erosketa kostuari gehitu behar zaizkio produktuari zuzenean leporatu ahal zaizkien kostuak eta produktuei zeharka egotzi ezin zaizkien kostuei dagokien arrazoizko zatia).

Izakinak zergapetzen dituzten zeharkako zergak soilik erosketa-prezioari gehitzen zaizkie (edo ekoizpen kostuari) Ogasun Publikoarengandik zuzenean berreskuratzea ezinezkoa denean.

Fundazioaren izakinek ez dutenez behar urtebetetik gorako denbora-tartea saltzeko moduan egoteko, ekoizpen-kostuan ez dira finantza-gastuak jasotzen.

Izakinen balio garbi bihurgarria eskuratze-prezioa (edo ekoizpen-kostua) baino baxuagoa bada, baloraziozko beharrezko zuzenketak egiten dira eta gastu gisa jasotzen dira emaitzen kontuan. Izakinen balioaren zuzenketa eragin zuten egoerak hala izateari uzten badio, zuzenketaren zenbatekoa berrikusten da eta sarrera gisa jasotzen da emaitzen kontuan.

4.7. Sozietateen gaineko zerga

Fundazioa 16/2004 Foru Arauaren arabera arautzen da, irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa. Horrenbestez, helburu edo xede zehatza betez garatutako ustiapen-ekonomikoetatik lortutako errentak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira.

4.8. Diru sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapen irizpidearen arabera egozten dira, hortik eratortzen den moneta edo finantza-korrontea gertatzen den unea aintzat hartu gabe.

Hala ere, ekitaldia itxiko den datan egindako mozkinak bakarrik zenbatuko ditu fundazioak, eta aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, behin-behinekoak barne, ezagutu bezain laster kontabilizatuko dira.

Ondasunak saltzeagatik edo zerbitzuengatik jasotako sarrerak, haiengatik jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioaren arabera egiaztatzen dira.

Urte anitzeko gastu konprometituak ematea onetsi den ekitaldiko emaitzen kontuan zenbatuko dira, pasiboko kontu batean ordainduz, hartutako konpromisoaren une horretako balioan.

4.9. Ingurumen-izaerako ondare-elementuak

Jardueraren garapenean ingurumen-eragina gutxitzea, edota ingurumena hobetzea eta babestea helburutzat daukaten sistema, ekipo eta instalazioetan eragindako kostuak ibilgetuko inbertsio gisa erregistratuko dira.

Ingurumenarekin lotutako gainerako gastuak, aurrekoak ez bezalakoak, ekitaldiko gastutzat jotzen dira. Ingurumen arloan egon daitezkeen hornidurak kalkulatzeko, horien berri izan den unean haien sortzapenaren zenbatespenik onenaren arabera zuzkitzen da, aseguru-polizek estaltzen ez badituzte eragindako kalteak.

Patronatuko kideek egiaztatzen dute fundazioak ez duela ondarearekin, finantza egoerarekin eta horien emaitzekin lotuta garrantzitsua izan daitekeen ingurumen arloko erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura edo arriskurik.

4.10. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Fundazioak kolaborazio-hitzarmenak ezarriko ditu zenbait proiektu finantzatzeko. Proiektu horiek egiteko kostuen ehunekoen arabera egotziko zaizkie sarrerei, eta emandako zenbatekoaren arabera, nahiz eta emandako zenbatekoa kobratzeke egon, baina betiere emateko eskatutako baldintzak betetzen badira edo, hala badagokio, etorkizunean beteko direla zalantzan jartzeko arrazoizko zalantzarik ez badago.

Fundazioak honako irizpide hauek baliatuko ditu jaso dituen dirulaguntzen kontabilitatea egiteko:

- Ustiapenari emandako dirulaguntzak: Emaitzei ordainduko zaizkie, eman ondoren, fundazioaren ustez bertan ezarritkao baldintzak betetzen direnean eta, horrenbestez, ez dagoenean kobratzearen gaineko arrazoizko zalantzarik, eta emaitzei egotziko zaizkie aldi bakoitzean dirulaguntzatik eratorritako sarreren eta diruz lagundutako gastuen artean egokitzapen zuzena bermatzeko.

- Kapitaleko dirulaguntzak: itzulgarriak ez direnak, zuzenean sarrera gisa erregistratuko dira ondare garbira egotzita, emandako zenbatekoan, zerga-ondorioa kendu ondoren. Hasieran erregistratu egiten da, emateari buruzko komunikazioa jaso ondoren, emateko banakako ebazpenetan ezarritako baldintzak betetzeari buruzko arrazoizko zalantzarik ez dagoen unean.

Hasierako aitorpenen Fundazioak aktibo gisa jasotako ondasunak edo zerbitzuak erregistratu ditu batetik eta, bestetik, ondare garbian dagokion hazkundea. Erregistro datatik aurrera kapitaleko dirulaguntzak emaitzei egozten zaizkie horiekin finantzatutako aktiboek aldi horretan izandako balio galtzearen proportzioan; baina balioa galdu ezin duten aktiboak badira, besterendu edo inbentarioan baja eman zaien ekitaldiko emaitzari egotziko zaio.

Itzuli daitezkeen dirulaguntzak pasibo bezala erregistratzen dira, itzulezin bihurtu arte.

5.- IBILGETU MATERIALA

2017ko ekitaldian epigrafe honen barruko balantzeko partida bakoitzaren eta amortizazioen mugimendu-analisia honako hau da:

	Eraik.	Beste instalazio eta erreminta batzuk	Altzariak	Informazio Prozesuen Ekipoak	Garraio elementuak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2017ko EKITALDIA	**21.696.104,78**	**616.484,29**	**1.378.580,65**	**335.025,22**	**139.434,81**	**24.165.629,75**
(+) Erosketak	0,00	2.969,28	12.571,69	0,00	0,00	15.540,97
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2016ko EKITALDIA	**21.696.104,78**	**619.453,57**	**1.391.152,34**	**335.025,22**	**139.434,81**	**24.181.170,72**
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2016ko EKITALDIA	**5.947.713,15**	**606.104,62**	**1.373.441,39**	**334.306,97**	**139.434,81**	**8.401.000,94**
(+) Dotazioa 2016ko ekitaldiko amortizazioari	433.922,10	1.521,98	4.027,12	232,71	0,00	439.703,91
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA 2016ko EKITALDIA	**6.381.635,25**	**607.626,60**	**1.377.468,51**	**334.539,68**	**139.434,81**	**8.840.704,85**
F) AMAIERAKO SALDOA 2016 IBILGETU MATERIALA, AMORTIZAZIO ETA BALIO ZUZENKETEKIN	**15.314.469,54**	**11.826,97**	**13.683,84**	**485,54**	**0,00**	**15.340.465,88**

A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	**21.696.104,78**	**619.453,57**	**1.391.152,34**	**335.025,22**	**139.434,81**	**24.181.170,72**
(+) Erosketak	0,00	25.513,83	75.590,76	22.373,18	0,00	123.477,77
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	**21.696.104,78**	**644.967,40**	**1.466.743,10**	**357.398,40**	**139.434,81**	**24.304.648,49**
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIA	**6.381.635,25**	**607.626,60**	**1.377.468,51**	**334.539,68**	**139.434,81**	**8.840.704,85**
(+) Dotazioa 2018ko amortizaziora	433.922,10	1.299,84	5.041,46	2.215,93	0,00	442.479,33
(+) Igoerak erosketa edo lekualdaketengatik	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Gutxitzeak irteera, baja, murrizketa edo lekualdaketengatik	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIA	**6.815.557,35**	**608.926,44**	**1.382.509,97**	**336.755,61**	**139.434,81**	**9.283.184,18**
F) IBILGETU MATERIALA, AMAIERAKO SALDOA, AMORTIZAZIOAK ETA BALIO ZUZENKETAK	**14.880.547,44**	**36.040,96**	**84.233,14**	**20.642,79**	**0,00**	**15.021.464,32**

2018ko abenduaren 31n *Ibilgetu Materiala* epigrafean erregistratutako AFAk lagatako ondasunen balorazioa honako hau da:

	Hasierako saldo gordina	Amortizazio metatua 2018.12.31 arte	Amaierako saldo garbia
Eraikina lagatzea	21.685.198,30	6.813.655,26	14.871.543,04
Altzariak lagatzea	855.498,31	855.498,31	0,00
Bulegoko ekipoak lagatzea	276.268,99	276.268,99	0,00
Makineria eta tresna teknikoak lagatzea	267.952,69	267.952,69	0,00
Instalazioak lagatzea	147.744,70	147.744,70	0,00
AFAren ondasunak lagatzea guztira	**23.232.662,99**	**8.361.119,95**	**14.871.543,04**

Ez da gertatu ekitaldi honetan edo gerokoetan eragin nabarmenik izan duen inguruabarrik hondar balioei, bizitza baliagarriei edo amortizatzeko metodoei dagokienez.

Fundazioak ez du balio-zuzenketarik egin ibilgetu-ondasunetan.

Ekitaldia ixterakoan erabat amortizatutako ibilgetu materialeko elementuak 2.044.274,98 eurokoak izan dira.

6.- ONDARE HISTORIKOAREN ONDASUNAK

2018ko ekitaldian epigrafe honen barruko balantzeko partida bakoitzaren eta amortizazioaren mugimendu-analisia honako hau da:

	AFAren artelanak lagatzea	Arabako Artium Fundazioaren artelanak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2017ko EKITALDIA	**37.234.005,47**	**762.444,65**	**37.996.450,12**
(+) Erosketak	0,00	45.200,00	45.200,00
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
(+/-) Egokitzapenak	0,00	2.000,00	2.000,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2017ko EKITALDIA	**37.234.005,47**	**809.644,65**	**38.043.650,12**
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2017ko EKITALDIA	**0,00**	**0,00**	**0,00**
(+) Dotazioa 2017ko ekitaldiko amortizazioari	0,00	0,00	0,00
(-) Gutxitzeak irteera, baja, murrizketa edo lekualdaketengatik	0,00	0,00	0,00
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2017ko EKITALDIA	**0,00**	**0,00**	**0,00**
E) BALIO ZUZENKETAK, NARRIADURAGATIK, AMAIERAKO SALDOA, 2016ko EKITALDIA	**0,00**	**0,00**	**0,00**
F) AMAIERAKO SALDOA, 2017ko EKITALDIA ONDARE HISTORIKOKO ONDASUNAK, AMORTIZAZIOAK KENDUTA ETA BALIO ZUZENKETAK	**37.234.005,47**	**809.644,65**	**38.043.650,12**

A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	**37.234.005,47**	**809.644,65**	**38.043.650,12**
(+) Erosketak	0,00	160.500,00	160.500,00
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
(+/-) Egokitzapenak	0,00	0,00	0,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	**37.234.005,47**	**970.144,65**	**38.204.150,12**
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIAREN HASIERA	**0,00**	**0,00**	**0,00**
(+) Dotazioa 2018ko ekitaldiko amortizaziora	0,00	0,00	0,00
(+/-) Egokitzapenak	0,00	0,00	0,00
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIA	**0,00**	**0,00**	**0,00**
E) BALIO ZUZENKETAK, NARRIADURAGATIK, AMAIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIA	**0,00**	**0,00**	**0,00**
F) AMAIERAKO SALDOA 2018, ONDARE HISTORIKOKO ONDASUNAK, AMORTIZAZIOAK KENDUTA ETA BALIO ZUZENKETAK	**37.234.005,47**	**970.144,65**	**38.204.150,12**

2018ko abenduaren 31n kontabilizatutako lagatzeen zenbateko gordina 37.234.005,47 eurokoa da, 2017ko zenbateko bera, 2018an lagatze-akordiorik egon ez delako.

Emaitza gisa lortu eta jasotako artelan horien guztien balio kontabilizatua 970.144,65 eurokoa da. 2018an bost emaitza-hitzarmen izenpetu dira, guztira 160.500,00 eurokoak.

Beraz, egoera balantzean Ondare Historikoko Ondasun gisa kontabilizatutako artelan guztien zenbatekoa — Arabako Foru Aldundiak Arabako Artium Fundazioari egindako lagatzeak eta Fundazioaren beraren jabetzakoak diren artelanak kontuan izanda— 2018ko ekitaldiaren amaieran 38.204.150,12 eurokoa da.

Ondare Historikoko Ondasunen atala osatzen duten artelanak ez dira amortizatzen, artelanen bizitza erabilgarria mugagabea dela ulertzen delako, eta aipatutako obrek ez dute narriadurarik pairatzen funtzionamendu, erabilera edo gozamenagatik.

7.- HIGIEZINEN INBERTSIOAK

Fundazioak ez du higiezinetako inbertsiorik.

8.- IBILGETU UKIEZINA

Kontu Bakoitzak 2018ko ekitaldian izan duen mugimendua honako hau izan da:

	Artelanen biltegiratzea	Aplikazio informatikoak	Bestelako ibilgetu ukiezina	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2017ko EKITALDIA	**5.603.721,90**	**266.830,85**	**13.594,90**	**5.884.147,65**
(+) Erosketak	91.400,00	7.430,00	0,00	98.830,00
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	-42.300,00	0,00	0,00	-42.300,00
(+/-) Aldeen egokitzapenak 2017	0,00	0,00	0,00	0,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2017KO EKITALDIA	**5.652.821,90**	**274.260,85**	**13.594,90**	**5.940.677,65**
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2017ko EKITALDIA	**2.680.057,57**	**261.354,36**	**3.920,57**	**2.945.332,50**
(+) Dotazioa 2017ko ekitaldiko amortizaziora	1.736.383,07	3.121,35	271,90	1.739.776,32
(-) Gutxitzeak irteera, baja, murrizketa edo lekualdaketengatik	0,00	0,00	0,00	0,00
(+/-) Egokitzapenak	-1.817.524,98	0,00	0,00	-1.817.524,98
(+/-) Aldeen egokitzapenak 2017	0,00	0,00	0,00	0,00
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2017ko EKITALDIA	**2.598.915,66**	**264.475,71**	**4.192,47**	**2.867.583,84**
E) BALIO ZUZENKETAK, NARRIADURAGATIK, AMAIERAKO SALDOA, 2017ko EKITALDIA	**0,00**	**0,00**	**0,00**	**0,00**
F) AMAIERAKO SALDOA 2017 IBILGETU UKIEZINA, BALIO ZUZENKETAK ETA AMORTIZAZIOAK KENDUTA	**3.053.906,24**	**9.785,14**	**9.402,43**	**3.073.093,81**

A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	**5.652.821,90**	**274.260,85**	**13.594,90**	**5.940.677,65**
(+) Erosketak	558.550,00	10.276,18	0,00	568.826,18
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	-190.550,00	0,00	0,00	-190.550,00
(+/-) Egokitzapenak	0,00	0,00	0,00	0,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2018KO EKITALDIA	**6.020.821,90**	**284.537,03**	**13.594,90**	**6.318.953,83**
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIA	**2.598.915,66**	**264.475,71**	**4.192,47**	**2.867.583,84**
(+) Dotazioa 2018ko ekitaldiko amortizaziora	1.772.658,27	4.601,33	271,90	1.777.531,50
(+/-) Egokitzapenak	-1.496.099,94	0,00	0,00	-1.496.099,94
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIA	**2.875.473,99**	**269.077,04**	**4.464,37**	**3.149.015,40**
E) BALIO ZUZENKETAK, NARRIADURENGATIK, AMAIERAKO SALDOA, 2018KO EKITALDIA	**0,00**	**0,00**	**0,00**	**0,00**
F) AMAIERAKO SALDOA 2018, IBILGETU UKIEZINA, BALIO ZUZENKETAK ETA AMORTIZAZIOAK KENDUTA	**3.145.347,91**	**15.459,99**	**9.130,53**	**3.169.938,43**

Artelanen gordailuak gordailu-hitzarmenean jasotako prezioaren arabera zenbatzen dira.

Egokitzapenak bat datoz gordailu-hitzarmenen luzapenekin eta aldez aurretik bertan behera uztearen ondoriozko bajekin.

2018an artelanen sei gordailu-hitzarmen erregistratu dira guztira 558.550 euroko zenbatekoan. Bidenabar, artelanen hiru gordailu partzialki doitu dira, guztira 190.550,00 euroko zenbatekoan. Azken horren balorazioa *2018ko Irteerak, bajak eta murrizketak* atalaren barruan jaso da.

Ez da gertatu ekitaldi honetan edo gerokoetan eragin nabarmenik izan duen inguruabarrik hondar-balioei, bizitza baliagarriei edo amortizatzeko metodoei dagokienez.

Fundazioak ez du balio-zuzenketarik egin ibilgetu ukiezinaren ondasunetan.

Ibilgetu ukiezineko elementuek, artelanen gordailuak aintzat hartu gabe, guztira amortizatutako 257.961,62 euroko kopurua hartzen dute ekitaldia ixterakoan.

9.- ALOKAIRUAK ETA ANTZEKO BESTE ERAGIKETA BATZUK

Fundazioak ez du alokairurik edota antzeko beste eragiketarik.

10.- FINANTZA TRESNAK

10.1. Finantza-aktiboak

Epe luzeko inbertsioen aktibo ez arrunten epigrafea 1.000 euroko epe luzeko fidantza bati dagokio. Partida honek ez du mugimendurik izan 2018an.

Aktibo arrunteko epe laburreko finantza-inbertsioen epigrafea 50 eurokoa da, eta Interneten erosketak egiteko app bat erabiltzeko eratutako fidantza bati dagokio. Epigrafe honetan ere ez da mugimendurik izan 2017an.

10.2. Finantza-pasiboak

10.2.1. Epe laburreko zorrak taldeko entitateekin eta entitate elkartuekin

Ez dago.

10.2.2. Epe laburreko zorrak

Beste finantza pasibo batzuk izeneko partida, 9.379,95 euroko kopurukoa, fundazioak deitutako bi lizitazio publikoren adjudikaziodunengandik jasotako fidantzei dagokie.

11.- JARDUNAREN ERABILTZAILEAK ETA BESTE ZORDUN BATZUK. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK

Guztira 48.994,44 euro erabiltzaile eta zordunei dagozkie.

Babesleak, afiliatuak eta beste zordun batzuk izeneko partidaren kopurua (65.865,17 €) ordaintzeke dauden dirulaguntzei eta 2018ko ekitaldiko beste ekarpen batzuei dagokie.

Merkataritza jardueren zordun komertzialak guztira 65.363,28 euroko kopurura iritsi ziren 2018an. *Beste kreditu batzuk Administrazio Publikoekin* izeneko partida (420.109,59 €) ordaintzeke dauden 2018ko BEZaren itzulketek (121.253,78 €) eta ekitaldia ixtean kobratzeke dauden 2018ko diru-laguntzek osatzen dute (azkenean 2019an ordaindu dira).

12.- ONURADUNAK – HARTZEKODUNAK. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK

Onuradunei dagokienez, fundazioak ez du horrelako pasiborik.

Hartzekodun komertzialen partidaren zenbatekoa 729.415,97 eurokoa da.

Artiumen denda eta Iburu-dendaren hornitzaileen partida 5.365,31 eurokoa da. Hartzekodunen partidan (641.523,47 €) Arabako Foru Aldundiarekiko zorra ageri da, eraikinaren Ondasun Higiezinen gaineko Zergagatik. 2006. urteaz geroztik Fundazioak, zuhurtziaren irizpideari jarraituz, udal zerga horren kostua kontabilizatzen du; zerga Fundazioari egozten dio Arabako Foru Aldundiak. Kontzeptu horrengatik kontabilizatutako zorra, 2006-2014 aldiari dagokiona, 146.454 eurokoa da. Zerga horren 2018ko kuota ordaindu egin du Fundazioak.

Langileen partida (ordaintzeke dauden soldatak), 3.076,56 eurokoa, ordaintzeke dagoen abenduko nominaren zati bati (2.076,56 €), 2019ko urtarrilean ordaindua, eta 2018ko prestakuntzarako laguntzei (1000,00 €), 2019an ordainduko direnak, dagokie. Ez da beste ezer geratzen ordaintzeke.

Ogasun publikoa, hartzekoduna kontzeptu fiskalengatik partida 2018ko laugarren hiruhilekoari dagokion konturako ordainketa eta txikipenei dagokie. Azkenik, *Gizarte Segurantzako erakunde hartzekodunak* partida abenduko gizarte-kotizazioei dagokie.

Epigrafe hau honela dago banakatuta:

	2018	2017
Hornitzaileak	5.365,31	850,99
Hartzekodunak, zerbitzu prestazioengatik	641.523,47	508.788,44
Langileak (ordaintzeke dauden ordainketak)	3.076,56	1.064,84
Oga. Publikoa, hartzekoduna kontzeptu fiskalengatik	52.606,31	52.914,14
Gizarte Segurantzako organismo hartzekodunak	26.844,32	24.057,69
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	**729.415,97**	**587.676,10**

13.- FUNTS PROPIOAK

Gizarte-funtsa, Arabako Foru Aldundiak emandakoa, 180.303,63 eurokoa da; erabat sinatuta eta ordainduta dago Fundazioa eratzeko egintzatik.

	Funts soziala	Gerakina	Ekitaldiko emaitza	Guztira
A)HASIERAKO SALDOA, 2017ko EKITALDIA	**180.303,63**	**-311.034,07**	**-19.846,10**	**-150.576,54**
(+) Gehikuntzak	0,00	-19.846,10	231.674,16	211.828,06
(+/-) Egokitzapenak	0,00	0,00	0,00	0,00
(+/-) Lekualdaketak	0,00	0,00	19.846,10	19.846,10
B) AMAIERAKO SALDOA, 2017ko EKITALDIA	**180.303,63**	**-330.880,17**	**231.674,16**	**81.097,62**
A) HASIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIA	**180.303,63**	**-330.880,17**	**231.674,16**	**81.097,62**
(+) Gehikuntzak	0,00	330.880,17	0,00	330.880,17
(+/-) Lekualdaketak	0,00	0,00	-231.674,16	-231.674,16
B) AMAIERAKO SALDOA, 2018ko EKITALDIA	**180.303,63**	**0,00**	**0,00**	**180.303,63**

Los fondos propios son positivos, por importe de 180.303,63 euros.

Gerakinen kontuan gertatzen diren gehikuntzak aurreko ekitaldiko soberakinaren banaketari (231.674,16 €) eta Patronoek ekitaldian zehar 99.206,01 euroko kopuruan egindako transferentzien aplikazioari dagozkie.

Artium fundazio publikoa denez, jardueraren jarraitutasun printzipioa betez prestatzen dira urteko kontuak.

14.- IZAKINAK

Izakinen balio osoa, denda eta liburu-dendako salgaiak, Artiumek argitaratutako katalogoen izakinak eta ekitaldia ixterakoan abian dauden argitalpenak barne, 171.841,17 eurokoa da (182.305,21 € 2017an).

Artiumen dendako izakinak (110.293,52 €) batez besteko prezio haztatuaren sistemaren bidez balioesten dira.

Fundazioak izakin komertzialak emateko dotazioak egiten ditu kostuak merkatuko balioa gainditzen duenean edo berreskuratzeko zalantzak daudenean. Horregatik 3.082,63 euroko kopurua ematea komenigarritzat jo da, balio galera dela medio.

Artiumek argitaratutako katalogoen izakinak (260.208,05 €) ekoizpen kostuan balioetsi dira.

Artiumek argitaratutako katalogoen izakinei dagokienez, zuhurtziaren irizpidea jarraituz balio-galeragatik de 236.645 euroko hornidura eman da.

Aribideko produktuen izakinak (41.067,10 €) ekitaldiaren amaieran bidean dauden baino oraindik argitaratu ez diren katalogoen ekoizpen-kostuei dagozkie (43.386,51 € 2017an).

Laburbilduz, abenduaren 31n izakinen banaketa hau izan da:

	2018	2017	Aldakuntza
Izakin komertzialak Denda-Liburu denda	110.293,52	108.939,06	1.354,46
Erakusketetako katalogoak	260.208,05	290.260,44	-30.052,39
Izakinak guztira (Jarduerara bideratutako ondasunak)	**370.501,57**	**399.199,50**	**-28.697,93**
(-) Izakin komertzialen balio galera	-3.082,63	-4.897,29	1.814,66
(+) Erakusketa katalogoen balio galera	-236.644,87	-255.383,51	18.738,64
Izakinen balio galera guztira (Jarduerara bideratutako ondasunak)	**-239.727,50**	**-260.280,80**	**20.553,30**
Izakinen Amaierako Saldoa (Jarduerara bideratutako ondasunak)	**130.774,07**	**138.918,70**	**-8.144,63**

Arian dauden produktuak	**41.067,10**	**43.386,51**	**-2.319,41**

Izakinen Amaierako Saldoa Guztira	**171.841,17**	**182.305,21**	**-10.464,04**

15.- MONEDA EXTRANJERA

No es de aplicación para la Fundación.

16.- EGOERA FISKALA

Arabako Artium Fundazioak Irabazi asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko 16/2004 Foru Arauan aurreikusitako zerga araubidea aplikatzen du, irabazi asmorik gabeko entitateetarako Sozietateen gaineko Zergari dagokionez; dendatik eta liburu-dendatik zein museo jardueratik eratorritako etekinak salbuesteko baimena du. Salbuespena, hala ere, ez dagokie alokairuan ustiatzen diren jatetxe eta kafetegiaren etekinei.

Era berean, Fundazioaren jarduerak Ekonomia Jardueraren gaineko Zergatik salbuetsita daude.

Diputatuen kontseiluaren uztailaren 10eko 34/2018 Foru Dekretuan (2018ko uztailaren 18ko 83. ALHAOn argitaratua) adierazi zenez, irabazi asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Araua aplikatuz Arabako Artium Fundazioaren jarduera edo programak lehentasunezkotzat jo dira 2018an.

Lehenago esandakoarekin bat etorriz, 2018ko abenduaren 31n ez da Sozietateen gaineko Zergaren ondoriozko gasturik sortu.

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bitartez, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izanik, araudian aldaketak izan dira, eta horren ondorioz izaera sozialeko entitateak zerbitzuen zenbait prestazioren BEZetik salbuetsita daude, esaterako liburutegiak, dokumentazio-zentro eta agiritegiak, museo, arte galeria edo pinakoteketan bisitak egitea, antzezlanak, musikalak, koreografia-emanaldiak, ikus-entzunezkoak eta zinema arlokoak; baita erakusketak eta tankerako adierazpenak antolatzean ere.

2017ko ekitaldian, jasandako BEZari lotuta dauden fakturen BEZ horren kuoten prorrata berezia kalkulatu da eta % 92koa izan da (% 86koa 2017an). 2019ko martxoan 390 ereduaren ordezko aitorpena aurkeztu da, jasandako BEZaren kuotak prorrataren azkeneko portzentaia kontuan izanda berriz kalkulatuta.

Indarrean dauden legezko xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat hartu zerga ikuskaritzek aztertu arte edo lau urteko preskripzio epea igaro arte. 2018ko abenduaren 31n, Arabako Artium Fundazioak indarrean dagoen legediaren arabera iraungi gabeko ekitaldietako zerga nagusi guztiak zabalik ditu aginte fiskalek ikuskatzeko. Arabako Artium Fundazioaren ustez, ikuskatuz gero ez da pasibo gehigarri garrantzitsurik sortuko.

17.- DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

17.1. Berezko jardueraren diru sarrerak

a) Bazkide eta afiliatuen kuotak

Bazkide eta afiliatuen kuotak, 17.369,00 euroko kopuruan, Artiumen Adiskideek 2018an emandako ekarpenei dagozkie (16.958,00 € en 2017).

b) Erabiltzaileen ekarpenak

Erabiltzaileen ekarpenak, 38.050,06 eurokoak (36.663,15 € en 2017) Leihatilako diru sarrerei dagozkie, Zentro-Museora sartzeko zein Artiumek sustatutako ekitaldietarako (zinema, eszena garaikidea, ikastaroak eta lantegiak, kontzertuak, etab.) sarrerak saltzeagatik.

c) Sustapen, babesle eta laguntzaileen zioz izandako sarrerak

Sustapen, babesle eta laguntzaileen zioz izandako sarrerak, 522.337,08 eurokoak 2018an, Zentro-Museoa eta jarduerak finantzatzeko lagungarriak diren enpresa eta erakundeen ekarpenei dagozkie. 2017an sarrera horiek 535.689,50 eurokoak izan ziren.

Atal honen barruan Artiumen Kide Korporatiboen programa ere jaso da —lau kategoria hartzen ditu: Babesle pribatua, Enpresa babeslea, Erakunde lankidea, Ohorezko Adiskidea eta Adiskide laguntzailea—, eta baita proiektu zehatzak (erakusketak, jarduerak, hezkuntza-programak, etab.) garatzeko beste enpresa eta entitate batzuek eskaintzen duten babesa ere.

Kide Korporatiboen programan 53 entitate eta enpresak hartu dute parte 2018an lehen lau kategorietan, eta bide horretatik 499.860,00 euro jaso dira (507.757,30 € 2017an). Adiskide laguntzaileen programaren bidez —enpresa txikiei eta inguru hurbileko negozio eta dendei zuzendua— 1.100 euro jaso dira 2018an, 2017ko kopuru berbera.

Bestalde, Babes pribatua, proiektu zehatzak garatzeko ekarpen gisa emandakoa, 21.377,08 euroko kopurura iritsi da 2018an (26.832,20 € 2017an).

d) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak, ekitaldiko soberakinari egotzita

Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak, 2.896.329,62 euroko zenbatekoan (2.987.909 euro 2017an), Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoaren mantentze eta funtzionamendu gastuak finantzatzeko erakundeek egindako ekarpenei dagokie batez ere.

Erakundeetatik jasotako dirulaguntza izendun horiei dagokienez, 2018ko ekitaldian Arabako Foru Aldundiak 1.956.329,62 euroko funtsen ekarpen bat egin du fundazioaren jarduna finantzatzeko. Eusko Jaurlaritzak 725.000 euroko ekarpena egin du. Kultura Ministerioak 110.000 euroko ekarpenarekin parte hartu du fundazioaren aurrekontu arruntaren finantzaketan. Eta, azkenik, Vitoria-Gasteizko Udalak 90.000 euroko ekarpena egin du 2018an.

Arabako Foru Aldundiak 99.206,01 euro eman ditu aurreko ekitaldietako defizitak finantzatzeko. Gainera, Fundazioak erositako ibilgetu guztietatik, 3.201,43 euroko kopurua Arabako Foru Aldundiaren kapitaleko dirulaguntzekin finantzatu da. Arabako Foru Aldundiak egindako ekarpenetik, 2018an 26.262,94 euro izendatu dira 2018an hasi eta 2019an amaituko diren programetarako. Labur esanda, Arabako Foru Aldundiaren funtsen ekarpen osoa 2018ko ekitaldian 2.085.000,00 eurokoa izan da, aipatutako kontzeptu guztiak kontuan hartuta (2.130.880 € 2017an).

- Vitoria-Gasteizko Udala, ordezkari batekin (% 8).
- Espainiako Gobernua (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa), ordezkari batekin (% 8).

34.3 Patronatuaren kideen ordainsariak guztira

Arabako Artium Fundazioak ez die inolako ordainsaririk ordaindu Fundazioaren Patronatuko kideei 2018ºko ekitaldian.

34.4 Patronatuaren kideen eta Fundazioaren arteko kontratu bidezko harremanak

Arabako Artium Fundazioak ez du Fundazioaren helburuari lotuta Fundazioaren Patronatuaren kideekin kontratu bidezko inolako harreman garrantzitsurik ezarri 2018ko ekitaldian.

34.5 Eskuordetzeak eta ahalordetzeak

Fundazioa Patronatuak gobernatzen du, eta Patronatuak Osoko Bilkuraren eta Batzorde Betearazlearen bitartez funtzionatzen du. Osoko Bilkurari dagokio haren kudeaketa zuritzea Babesleen aurrean eta Fundazioa ordezkatzea, Estatutuetan eta indarrean dagoen legedian ezarritakoak beste mugarik gabe. Patronatuaren Osoko Bilkurak Fundazioaren estatutuetako 11.2 artikuluan adierazitako ahalmenak ditu.

Fundazioa ordezkatu, gobernatu, kudeatu eta administratzeko funtzioetan, Fundazioaren estatutuetako 20.4. artikuluan deskribatutako ahalmenak Batzorde Betearazleari dagozkio.

2008an Fundazioaren Patronatuak Daniel Castillejo Alonso jauna izendatzea erabaki zuen Arabako Artium Fundazioaren zuzendari. Kargu hori zela bide, Fundazioaren eguneroko kudeaketaren ardura zeukan, eta banku-establezimenduetan ohiko eragiketak egin, ireki eta baliogabetzeko sinadura, baita kontratuak eta fakturak sinatzeko ere; bidenabar, ahalordetze-eskrituran emandako bestelako ahalmenak ere bazituen.

2013ko urriaren 21ean, Patronatuaren Osoko Bilkurak, aho batez, Artiumen zuzendari gisa Daniel Castillejo Alonso jaunaren kontratua berritzea erabaki zuen, izaera mugagabez; hala, arlo honetan foru-sektore publikoko erakundeetako beste zuzendarien kontratuekin parekatu zen.

Halaber, kontratu berrian kalte-ordainen araubidera egokitzea berrikuntza gisa jaso zen, lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legearen VIII Xedapen Gehigarrian xedatutakoari dagokionez, toki, erkidego eta estatu mailako administrazioen sektore publikoetako erakundeetako zuzendariei dagokienez. Xedapen gehigarri hori dela bide, kalte-ordainerako eskubidea desagerrarazi zen kontratua kontratatzailearen borondatez bukatzen bada, arrazoia edozein dela medio, zuzendaria karrerako funtzionario bada edo sektore publikoa osatzen duen erakundeko langilea bada, lanpostuaren erreserbarekin.

2018an eta Daniel Castillejok bere zuzendari postuari uko egin ondoren, hautaketa prozesu bat burutu zen Artiumenerako zuzendari bat aurkitzeko. Azkenean, eta prozesua burutu ondoren, Fundazioaren Patronatuak Beatriz Herráez Diéguez izendatu zuen Artiumen zuzendari. Artiumen zuzendari berriak 2018ko abenduaren 3an ekin zion bere egitekoari. 2018ko abenduaren 13ko Batzorde Betearazleak aurreko zuzendariari ahalordeak kendu eta zuzendari berriari ematea erabaki zuen. Orain ahalorde berriak idatzi zain gaude, Patronatuaren Osoko Bilkurari ahalorde horiek bati kendu eta eta hurengoari ematea aurkezteko.

Zuzendariaz gain, Garapen eta Finantza arloko zuzendariordeak ere zenbait egintza egiteko ahalmena dauka zuzendaria ez dagoenean, eta, azkenik, Finantzen arduradunak Fundazioaren izenean eta ordezkari gisa sinadura elektronikoko eragiketak egiteko ahalmena dauka, zuzendariarekin batera.

35.- FUNDAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEARI BURUZKO INFORMAZIOA

35.1 Batzorde Betearazlearen kideak 2018an

Honako erakunde hauek daude abenduaren 31n Fundazioaren Batzorde Betearazlean, Kultura, Euskara eta Kirol Saileko foru diputatua buru dutela:

- Arabako Foru Aldundia (2 ordezkari)
- Eusko Jaurlaritza (ordezkari 1)
- Vitoria-Gasteizko Udala (ordezkari 1)
- Babesle pribatuak (ordezkari 1. 2018an ordezkaritza hori Fundación Vital Fundazioari egokitu zaio.

35.2 Batzorde Betearazlearen jarduna 2018an

El Comité Ejecutivo ha celebrado en 2018 doce sesiones, los días 11 de enero, 1 de febrero, 1 de marzo, 22 de marzo, 19 de abril, 10 de mayo, 7 de junio, 5 de julio, 6 de septiembre, 4 y 18 de octubre y 13 de diciembre asistiendo además de los miembros de dicho Comité el Director de la Fundación hasta el 2 de diciembre, Daniel Castillejo Alonso y el Subdirector del Área de Desarrollo y Finanzas Javier Iriarte Salazar. A la sesión del 13 de diciembre asistió la nueva Directora de la Fundación Beatriz Herráez Diéguez, junto con el Subdirector.

Batzorde Betearazleak hamabi saio egin ditu 2018an, zehazki esateko urtarrilaren 11n, otsailaren 1ean, martxoaren 1ean, martxoaren 22an, apirilaren 19an, maiatzaren 10ean, ekainaren 7an, uztailaren 5ean, irailaren 6an, urriaren 4an eta 18an, eta abenduaren 13an. Abenduaren 2ra arte, bilera horietan aipatutako batzordearen kideez gain, Fundazioaren zuzendari Daniel Castillejo Alonso jauna eta eta Garapen eta Finantzen zuzendariorde Javier Iriarte Salazar jauna ere bertan izan ziren. Abenduaren 13ko saiora Fundazioaren zuzendari berria, Beatriz Herráez, joan zen, zuzendariordearekin batera.

Batzorde Betearazleak 2018an egindako jarduera esanguratsuenak honako hauek izan dira:

A.- Museo Arloa.

1.- Artelanen erosketa, gordailu, dohaintza, ordainean emate eta maileguak.

- Ondokoen artelanen erosketak onartzea: Salim Malla, Miriam Isasi, Ixone Sádaba, Iratxe Jaio y Klass van Gorkum, Zigor Barayazarra, Liliana Porter, Alicia Mihai Gazcue, Ana Tiscornia etaRosana Antolí, azken honena Grey Flag programaren barruan. Eta ondokoen artelan banaren sarrera berezia: Santos Iñurrieta, Eneritz Burgos, Mario Paniego, Natalia Albéniz ta Nerea Lekuona.
- Eduardo Hurtadoren artelanen dohaintza-hitzarmena; horren bitartez berak egin eta bere jabetzako artelanak dohaintzan eman zituen.
- José Ramón Amondarainekiko dohaintza-hitzarmena; horren bitartez berak egin eta bere jabetzako bi artelan dohaintzan eman zituen
- Isidro López-Apariciorekiko dohaintza-hitzarmena; horren bitartez berak egin eta bere jabetzako bi artelan dohaintzan eman zituen.

- Angel Marcosekiko dohaintza-hitzarmena; horren bitartez berak egin eta bere jabetzako artelan bat dohaintzan eman zuen.
- Dumaca S.L.rekiko gordailu-hitzarmena; horren bitartez bere jabetzako artelan bat utzi zuen gordailuan.
- Iratxe Jaio eta Klass van Gorkumekiko gordailu-hitzarmena; horren bitartez beraiek egin eta beren jabetzako artelan bat utzi zuten gordailuan.
- Avelino Salarekiko gordailu-hitzarmena; horren bitartez berak egin eta bere jabetzako artelan bat utzi zuen gordailuan.
- Concha Jerez eta Pepe Igesekiko gordailu-hitzarmena; horren bidez beraiek egin eta beren jabetzako artelan bat utzi zuten gordailuan.
- INTELCORP AFCI S.L.ekiko gordailu-hitzarmena; horren bidez bere jabetzako lau artelan utzi zituen gordailuan.
- María Dolores Julverekiko gordailu-hitzarmena; horren bidez bere jabetzako artelan bat utzi zuen gordailuan.
- Mario Legorbururen artelanen gordailutik artelan bat kentzeko akta onartzea.
- Juan Luis Morazaren artelanen gordailutik artelan bat kentzeko akta onartzea.
- Inmomym S.L.ren artelanen gordailutik artelan bat kentzeko akta onartzea.
- Besteak beste, enpresa edo erakunde hauek eskatutako hainbat artelanen maileguak onartzea: Valentziako Fundación Bancaja, Bartzelonako Fundación Tapiés, Aguraingo Zalabarte eta Amurrioko La Casona aretoak (rabako Foru Aldundiaren Kultura Saila), Madrilgo Pradoko Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Madrilgo Casa Encendida, Baionako Euskal Museoa, Fuenlabradako Centro de Arte Tomás y Valiente, Madrilgo Tabacalera, Logroñoko Udalaren erakusketa aretoa, Madrilgo Cibeles Jauregia, Vitoria-Gasteizko Montehermoso Kulturunea, Sevillako Virgen del Hospital de la Caridad aretoa (Sevillako udala), Sevillako Unibertsitateko Centro de Iniciatias Culturales (Sevillako udala), Sevillako Espacio Santa Clara (Sevillako udala), Sevillako Sala Atín Aya (Sevillako udala), Madrilgo Museo Nacional de Arte Reina Sofía, Sevillako Centro Andaluz de Arte Contemporáneo (CAAC) eta Montevideoko Centro Cultural de España.

2.- Ekoizpen eta lankidetza hitzarmenak.

- *Espazioaren barrea (Guernica)* izeneko erakusketaren joan-etorrietarako lankidetza-hitzarmena Casal Solleric-ekin.
- *Brossa* Poesia izeneko erakusketaren joan-etorrietarako lankidetza-hitzarmena MACBArekin.
- *Más allá de mis pies. Colección Artium (Escultura)* erakusketa Logroñoko Udalaren erakusketa-aretoan ikusgai jartzeko SCULTO Cultura y Difusión S.L.,-rekiko lankidetza-hitzarmena.
- Centro Andaluz de Arte Contemporáneo (CAAC)-rekiko lankidetza-hitzarmena Jacobo Castellanoren *riflepistolacañon* erakusketa elkarrekin ekoizteko.
- Caserío Garzabal-ekiko lankidetza-hitzarmena *Grey Flag* proiektua ekoitzi eta erakusteko.
- AZALArekiko lankidetza-hitzarmena 2018an arte eszeniko eta performatiboen PROKLAMA programa burutzeko.
- Kultura Kalean! Elkartearekiko hitzarmena onartzea Korterraza Jaialdiaren 2018ko edizioa burutzeko.
- Asociación Musical Sinkrorekiko hitzarmena onartzea Festival Bernaola Sinkro 2018 burutzeko.
- EKINEAN IBILTARI izeneko programaren barruan komisariotza-proiektu bat hautatzeko lehiaketaren deialdia berrestea.
- EKINEAN IBILTARI izeneko programaren barruan hautatutako komisariotza-proiektua berrestea.
- Mugako Musika Elkartearekiko hitzarmena onartzea Mugako 2018 jaialdia burutzeko.
- Factoría de Fuegos Elkartearekiko hitzarmena onartzea Intacto 2018 jaialdia burutzeko.
- Swingvergüenza Elkartearekiko lankidetza hitzarmena onartzea Gastroswing 2018 jaialdia burutzeko.

- Convenio de colaboración con la Asociación para la difusión del conocimiento TEDxAlmendra Medieval para el desarrollo del proyecto TEDxVitoria-Gasteiz y sus derivaciones, en Artium.
- AEFAT Elkartearekiko lankidetza-hitzarmena Aitzina Folk proiektua, Vitoria-Gasteizko folk musikako jaialdi solidarioa burutzeko.
- Altraste Danza elkartearekiko lankidetza hitzarmena Danzálava proiektua burutzeko. Convenio de colaboración con la Asociación Altraste Danza para la realización del proyecto Danzálava.

3.- Beste batzuk.

- Toulouseko Jean Jaurès Unibertsitatearekiko hitzarmena hango ikasleek Bilduma eta Erakusketak Sailean prestakuntza praktikoa jasotzeko.
- Madrilgo Complutense Unibertsitatearekiko hitzarmena Artiumen Liburutegian prestakuntza-praktikak egiteko.

B.- Administrazio eta Gobernu Arloa.

1.- Babesa eta beste lankidetza-hitzarmen batzuk.

- Vital fundazioarekiko lankidetza-hitzarmena onartzea eta Osoko Bilkuran aurkeztea. Horren bidez indarrean dagoen hitzarmenaren klausula batzuk aldatzen dira.
- EITBrekiko lankidetza-hitzarmena onartzea eta Osoko Bilkuran aurkeztea. Horren bidez Artium Fundazioaren Babesle pribatu izaten jarraituko du Enpresa Babesle gisa.
- EDP Comercializadora-rekiko lankidetza-hitzarmena. Horren bidez Fundazioaren kide korporatiboen programan sartuko da Enpresa Babesle gisa 2019tik aurrera.
- Colegio Urkide Ikastetxea-rekiko lankidetza-hitzarmena. Horren bidez Babes Pribatuko programan sartuko da Ohorezko Adiskide gisa.
- Etxepare Euskal Institutuarekiko lankidetza-hitzarmena *Carmen // Shakespeare. Desiraren iragarpenak* izeneko erakusketaren joan-etorrietarako dirua emateko.
- Quintas Fotógrafos-ekin, Restaurante-Asador Matxete-rekin, Warhol Bar-ekin, Cube-Artium-ekin eta Perfumería Ibarrondo-rekin izenpetutako Fundazioaren Adiskide Laguntzaile hitzarmenak berrestea.
- Jimmy Jazz Gasteiz-ekiko lankidetza-hitzarmena onartzea. Horren bidez Babes Pribatuko programan sartuko dira Artiumen Adiskide Laguntzaile gisa.

2.- Ekonomia eta finantza gaiak.

- 2017ko ekitaldiko kontuak prestatzea, jardueren memoria, balantzea eta emaitzen kontua, memoria, aurrekontuaren likidazioa eta inbentarioa barne.
- 2019ko ekitaldiko aurrekontua eta jarduera-plana onartu eta hura Patronatuaren Osoko Bilkurari aurkeztea.
- 2019rako tarifak onartu eta Patronatuaren Osoko Bilkurari aurkeztea.
-

3.- Kontratazioa.

- Zentro Museoaren eta instalazioen prebentziorako eta zuzenketarako zerbitzua emateko kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak onartu eta esleitzea.
- 2018 urterako segurtasun eta zaintza zerbitzua emateko kontratuaren oinarriak eta lizitazio publikoa onartu eta hutsik uztea.

- 2018 urterako segurtasun eta zaintza zerbitzua emateko oinarriak eta kontratuaren lizitazio publikoa berretsi eta esleitzea.
- 2019 urterako segurtasun eta zaintza zerbitzua emateko kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak onartu eta esleitzea (oraingoz etenda, lizitatzaileetako batek aurkeztutako helegite berezia ebatzi arte).
- Publikoaren arretarako laguntzaileen zerbitzua emateko kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak onartu eta esleitzea
- Artiumen diseinu grafikoaren zerbitzua emateko kontraturako lizitazio publikoa esleitzea.
- Artiumen egiten diren jarduereretarako ikus-entzunezko euskarri teknikoa emateko kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak onartu eta kontratua esleitzeko akordioa.
- *Brossa Poesia* izeneko erakusketako artelanak itzultzeko garraio-zerbitzuaren kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak berrestea.
- Artiumen Emenaldi-aretorako zinema eta soinu profesionaleko equipo baten zuzkidurarako kontratua esleitzea.
- BNFIX KLZ AUDITORIES, S.L.P.-ren izendapena onartzea 2018amaitutako ekitaldiko kontuen auditore gisa.

4.- Lan arloa.

- Artiumen zuzendari postua betetzeko deialdi publikoa onartzea.
- Artiumen Zuzendari postua betetzeko lehiaketaren balorazio batzordean egotekoak ziren Fundazioaren Patronatuko kideen izendapena.
- Artiumen zuzendari berriaren izendapena onartu eta Osoko Bilkurari aurkeztea.
- Dokumentazio eta Berrikuntza postu baterako deialdiaren oinarriak onartzea, langile batek bere borondatez lana uztearen ondorioz hutsik geldítutako postu bat betetzeko.
- Arabako Artium Fundazioaren Hitzarmen Kolektiboa onartzea.
- Arabako Artium Fundazioaren langileentzako soldata-igoera bat onartzea.
- Fundazioko langile baten borondatezko eszedentzia luzatzeko eskaera ez onartzea.

5.- Beste batzuk .

- Fundazioaren Etika eta Gobernu Onaren Kodea eta Jokabide Kodea onartu eta Osoko Bilkurari aurkeztea.

C.- Estatutuen aldaketak.

- Arabako Artium Fundazioaren Estatutuak, egungo araudiari egokitzeko, aldatzeko proposamena onartu eta Osoko Bilkurari aurkeztea.

36.- LANGILEEN DATUAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EKARPENAK

Abenduaren 31ko 52/2013 Foru Dekretua betez, honako taula hau jaso da:

LANGILEEI BURUZKO DATUAK ETA AFA-REN EKARPENAK	2018	2017
LANGILEEN KOSTUA	871.366	854.192
LANGILEEN GASTUAK	1.122.465	1.103.228
PLANTILLA	22	23
AFA-REN EKARPENAK	2.085.000	2.130.880
KAPITALEKO DIRULAGUNTZAK	29.464	22.971
DIRULAGUNTZAK USTIAPENARI	1.956.330	2.107.909
GALEREN KONPENTSAZIO EKARPENAK	99.206,01	0
KAPITAL HANDITZEAK	0	0

37.- AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

37.1 Aurrekontuaren konparazioa 2018ko ekitaldiko benetako gauzatzeari dagokionez

A. GASTUEN AURREKONTUREN LIKIDAZIOA

GASTUAK	Aurrekontua	Gauzatuta	Desbidera.
FUNTZIONAMENDU ERAGIKETAK			
1. Hornidurak	25.000,00	19.495,95	5.504,05
2. Langileen gastuak	1.238.972,58	1.136.413,22	102.559,36
3. Izakinen aldakuntza	0,00	10.464,04	-10.464,04
4. Ibilgetuko amortizazioen dotazioa	0,00	2.220.010,83	-2.220.010,83
5. Beste gastu batzuk	2.492.541,06	2.671.915,68	-179.374,62
6. Narriadura eta emaitza ibilgetuen eragiketak	0,00	6.144,44	-6.144,44
Funtzionamendu eragiketen gastuen guztira	**3.756.513,64**	**6.064.444,16**	**-2.307.930,52**
FUNTS ERAGIKETAK			
7. Ibelgetua gehitzea	8.000,00	-61.656,94	69.656,94
8. Funtzionamenduko kapitala murriztea	0,00	213.813,43	213.813,43
9. Sarreren murritzea, zenbait ekitalditan banatu beharrekoak	0,00	64.531,60	64.531,60
Funts eragiketen gastuen guztira	**8.000,00**	**216.688,09**	**348.001,97**
GASTUAK GUZTIRA	**3.764.513,64**	**6.281.132,25**	**-2.516.618,11**

B. DIRU-SARREREN AURREKONTUREN LIKIDAZIOA

SARRERAK	Aurreikusita	Gauzatuta	Desbidera.
FUNTZIONAMENDU ERAGIKETAK			
1. Jarduera propioaren sarrerak	3.577.170,00	3.519.919,65	-57.250,35
a) Erakundeen ekarpenak	2.825.000,00	2.881.329,62	56.329,62
b) Babesleen sarrerak	647.150,00	537.337,08	-109.812,92
c) Salmentak eta ohiko beste sarrera batzuk	85.750,00	83.883,95	-1.866,05
d) Bazkide eta afiliatuen kuotak	19.270,00	17.369,00	-1.901,00
2. Beste sarrera batzuk	187.193,64	313.005,49	125.811,85
3. Finantza sarrerak	150,00	0,00	-150,00
4. Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0,00	2.226.155,27	2.226.155,27
5. Ezohiko sarrerak	0,00	5.363,75	5.363,75
Funtzionamendu eragiketen sarreren guztira	**3.764.513,64**	**6.064.444,16**	**2.299.930,52**
FUNTS ERAGIKETAK			
6. Bazkideen ekarpenak gehitzea	0,00	99.206,01	-99.206,01
7. Epe laburretako zorrak gehitzea	0,00	10.464,04	-10.464,04
8. Funtzionamenduko kapitala murriztea	0,00	107.018,04	107.018,04
Funts eragiketen sarreren guztira	**0,00**	**216.688,09**	**-2.652,01**
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	**3.764.513,64**	**6.281.132,25**	**2.516.618,11**

37.2 2018ko aurrekontuaren likidazioaren azalpen-oharrak.

Alderatu ahal izateko eta datuak hobeto azaldu ahal izateko, hona hemen 2018ko aurrekontuaren gauzatzea eta aurrekontuaren datuak.

A. GASTUEN AURREKONTUA

FUNTZIONAMENDU ERAGIKETAK

A1. HORNIDURAK

	Aurrekontua	2018	Desbidera.
Hornidurak	23.000,00	16.061,40	6.938,60
Beste erosketa batzuk	2.000,00	3.434,55	-1.434,55
Guztira	**25.000,00**	**19.495,95**	**5.504,05**

Partida hau Artiumeko denda eta liburu-dendako produktuak erosteari dagokio.

2018ko ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako kopurua 25.000 eurokoa zen. Aurrekontuaren benetako gauzatzean dendarako horniduren kopuru osoa 19.495,95 eurokoa izan da. 16.061,40 euroko erosketez gain, 3.434,55 euroko kopurua gehitu behar da, dendarako paper eta biltzeko materiala erosteagatik

A2. LANGILEEN GASTUAK

	Aurrekontua	2018	Desbidera.
Langileen gastuak	956.797,19	871.365,72	85.431,47
Gizarte-aseguruak	260.561,07	245.618,56	14.942,51
Prestakuntza	15.500,00	12.455,99	3.044,01
Beste gastu sozial batzuk	6.114,32	6.972,95	-857,63
Guztira	**1.238.972,58**	**1.136.413,22**	**102.560,36**

Langileen gastuen partidan Artiumeko langileen gizarte-kotizazioak, soldatak, ordainsariak eta konpromiso sozialak jaso dira (Fundazioko langileen bizitza-aseguruak eta BGAE ekarpenak), eta baita prestakuntza-gastuak ere.

Langileen gastuak epigrafean Fundazioko langileen soldatak eta ordainsariak jasotzen dira. 2018ko aurrekontuan aurreikusita zegoen, soldaten % 1,5eko igoeraz gain, ordainsarien egokitze bat —berezia eta ezohikoa, lanpostuen edukiagatik edota lanari lotutako helburuen lortze-mailagatik ezinbestekoak— lanpostu bakoitzari dagokiona ezartzearen ondorioz.

2018an Hitzarmen Kolektibo berri bat izenpetu da Fundazioaren langileentzako, zeinaren iraunaldia 2016tik 2019ra bitartekoa baita. Ezarritako soldata-igoerak Arabako Foru Aldundiak bere langileentzako onartutakoak berak dira. Batzorde Betearazleak ondoko soldata-igoerak onartu ditu 2018an:

- 2018ko uztailean, % 1,5eko soldata-igoera onartu zuen batzordeak, Foru Aldundian bezala.

- 2018ko abenduan, beste % 0,25eko soldata-igoera bat onartu zuen Batzordeak, uztailaren 1etik aurrera ezarriko zena, 2018ko urriaren 23ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 549/2018 akordioan oinarrituz.
- 2018ko abenduan, eta Foru Gobernuaren Kontseiluaren urriaren 23ko 551/2018 eta maiatzaren 22ko 247/2018 akordioetan oinarriturik, Batzordeak produktibitate funts baten zuzkidura onartu zuen, langile bakoitzaren % 1,175 dena, 247/2018 akordioan erabakitako kalkulu-irizpide berberekin.

Laburbilduz, aurrekontuan aurreikusita zeuden gero azkenean egin ez diren soldata-igoerak, eta hori da ekitaldiaren amaieran ikusten den desbideratzearen arrazoi nagusia.

Bestalde, 2018rako aurreikusitako batez besteko plantilla 21,44 pertsonakoa zen, eta benetakoa, berriz, 20,69 pertsonakoa izan da. 2018ko ekainean Fundazioaren langile batek lana utzi du bere borondatez eta hark hutsik utzitako postua 2019ko otsailean bete da. Era berean, uztailean beste langile batek lau hilabeteko borondatezko eszedentzia bat eskatu zuen. Azken hura ez da berriz itzuli eta hark hutsik utzitako postua ez da bete.

Azkenik, eta Daniel Castillejok zuzendaritza utzi ondoren, zuzendari berri bat hautatzeko prozesu bat burutu da, eta azkenean Beatriz Herráez izan da hautatua 2018ko abenduaren 3tik aurrera zuzendari izateko. Daniel Castillejo Bildumaren Kontserbatzaile postura itzuli da. Gertaera hauek ez ziren aurrekontuan aurreikusten.

Gainerako desbideratze positiboa ordeztu ez den epe luzeko baja bati zor zaio.

Prestakuntzako gastuaren zati handiena Fundazioko langileek hizkuntzak ikasteko Mondragón Linguarekin izenpetutako hitzarmenaren balio ekonomikoari dagokio (9.000,00 €). Zenbateko hori bat dator diru-sarreren kapituluko kopuru baliokide batekin, babes-programengatiko diru-sarreren kapituluan, empresa horrekin izenpetutako lankidetza hitzarmenaren (Erakunde Lankidea) esparruan

Gainerakoa (7.833 €) prestakuntza ikastaroei dagokie, langileak biltzarretan egoteko eta bidaia gastuak ordaintzeko eta, kasu batzuetan, ostatu hartzeko gastuak barne.

Beste gastu sozial batzuk partidan enpresak BGAEri egindako ekarpenak (3.849,38 €) eta Fundazioaren langileentzako istripu- eta bizitza-aseguruko polizaren ordainketa jaso dira (1.631,54 €).

Laburbilduz, langileen gastuen desbideratze positiboa 2018an 102.560,36 eurokoa da.

A3. IZAKINEN ALDAKETA

10.464,04 euroko murrizketa urteko kontuen memoriako 14. oharrean azaldu da.

A4. IBILGETUKO AMORTIZAZIOEN DOTAZIOAK

2017ko ekitaldiko ibilgetuaren amortizaziora bideratutako dotazioaren kopurua 2.220.010,83 eurokoa izan da. Amortizazioak sarreren atalean kopuru bereko beste zenbateko batekin konpentsatzen direnez, ez da ageri zenbatekorik aurrekontuan. Horrez gain, artelanen gordailuaren amortizazioari dagokion egokitzapena ere ez zen aurreikuspenean jaso, ez baitu eraginik aurrekontuan.

Horren haritik, urteko kontuen memorian azaldu bezala (17.8 oharra), 2012tik aurrera artelanen gordailuak amortizatzeko irizpidea aldatzea erabaki zen. Hala, aurreko ekitaldietan gordailu horiek amortizaezin gisa hartzen ziren, aipatutako artelanak erabili eta gozatzeagatik ez zutelako narriadurarik pairatzen. Hala ere,

2012tik aurrera eta gure auditoreen gomendioei jarraituz, artelanen gordailu-hitzarmenak amortizatu egin dira, horien iraupenaren arabera.

Auditoreak aldatu diren arren, 2018ko urteko kontuetan ez da irizpide hori aldatu.

Halaber, AFAk lagatako ondasunen amortizazio-dotazioei aplikatutakoaren haritik, artelanen gordailu-hitzarmenetako amortizazioetarako dotazioak kopuru bereko sarrerekin konpentsatzen dira (Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak, ekitaldiko emaitzetara igarotakoak). 2018an amortizazioetara egindako dotazioen banakapena eta 2017koekin egindako konparazioa hurrengo taulan jaso da:

	2018	2017
AFAren ondasunen lagapen-amortizazioa	433.703,97	433.703,97
Artelanen gordailu-hitzarmenen amortizazioa	1.772.658,27	1.794.237,02
Beste elementu ibilgetu batzuen amortizazioa	13.648,59	9.765,32
Guztira	**2.220.010,83**	**2.237.706,31**

A5. BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen izaeraren araberako gastuen zerrenda:

	Aurrekontua	2018	Desbidera.
Erakusketak eta argitalpenak	584.203,00	623.358,68	-39.155,68
Jarduerak	84.000,00	82.468,46	1.531,54
Alokairuak	10.587,60	10.294,80	292,80
Konponketak eta kontserbazioa	258.858,70	271.356,02	-12.497,32
Profesional independenteen zerbitzuak	22.556,96	22.026,14	530,82
Garraioa	5.670,00	5.743,09	-73,09
Aseguruen primak	38.500,00	35.251,34	3.248,66
Banku-zerbitzuak eta parekoak	1.300,00	1.271,03	28,97
Publizitatea, propaganda eta har.-publikoak	301.700,00	326.052,52	-24.352,52
Hornidurak	151.657,18	147.741,87	3.915,31
Zergak	34.500,00	35.112,93	-612,93
Komunikazioak	23.501,33	20.173,92	3.327,41
Enpresak emandako beste zerbitzu batzuk	937.576,29	1.051.436,90	-113.860,61
Beste gastu batzuk	37.930,00	39.627,98	-1.697,98
Guztira	**2.492.541,06**	**2.671.915,68**	**-179.374,62**

Oro har, erakusketen eta argitalpenen benetako gastua 623.358,68 eurokoa izan da, 39.155,68 euroko desbideratze negatibo batekin. *Erakusketak eta argitalpenak* izeneko gastuan haiek ekoizteko beharrezkoak diren gastu guztiak sartzen dira, hala nola artelanen garraio-gastuak, erakusketa-aretoen muntaketa, jardueren kontratazioa eta haien muntaketa, eta abar, eta baita ekoizpen-gastuak, artista eta komisarioen ordainsariak eta esku-paper eta katalogoen argitalpena ere.

Atal honetan jasotzen da, orobat, BEZaren hainbanakoa doitzearen eragina ere. 2018an 125.058,14 eurokoa izan da (aurrekontuan 130.000 €), eta horrek, lehen ere azaldu den bezala (17.7 oharra), Zentro-Museoaren jardueraren gastu zuzenaren kostu handiagoa esan nahi du.

2018rako hasiera batean aurreikusitako programazioari dagokionez, *Ekinean ibiltari* programa izan da aldaketa nagusia. Esku-hartze artistikoak egin dira Arabako lurraldeko puntu batzuetan eta besteetan,

Arabako Foru Aldundiak bultzatutako Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren barruan. Proiektu horrek 35.000,00 euroko aurrekontua izan du.

Jardueren atalean, egindako gastua 82.468,46 eurokoa izan da, 1.531,54 euroko desbideratze negatiboarekin.

Alokairuak epigrafea Museoko ibilgailu bati (*leasing*) eta Zentro-Museoko ordenagailuei (*renting*) dagokie.

Konponketak eta Zaintza epigrafean, besteak beste, Artiumeko instalazioen garbiketa eta mantentze-gastuen kopurua jaso da, Zentro-Museoko instalazio eta eraikineko prebentzio zein zuzentzeko mantentze-lanei dagokienez. 2018an 12.497,32 euroko desbideratze negatiboa sortu zen. Artiumen eraikinaren prebentziozko eta zuzentzeko mantentze-zerbitzuaren kostua handitu izanari dagokio hori, 2018an lizitatu dena.

Profesional independenteen zerbitzuak epigrafeak aholkularitza juridikoko zerbitzua jasotzen du.

Garraioak epigrafea mezularitza- eta garraio-zerbitzu orokorrei dagokie.

Aseguruen epigrafean, batez ere eraikina eta Bilduma estaltzeko Fundazioak ordaindutako aseguru-primei dagokiena, 3.248,66 euro aurreztu dira 2018an.

Publizitatea, Propaganda eta Harreman publikoak epigrafean Zentro-Museoaren publizitate orokorraren kostua jaso da, baita 2018an egindako publizitate kanpainen kostua ere. Alde esenguratsu bat, 246.359,96 eurokoa (% 76), kide korporatiboen ekarpenak dira gauzatan, publizitate edo trukeen bitartez. Kopuru hori sarreretako kopuru bereko zifra bati dagokio.

Desbideratze negatiboa, 24.352,52 eurokoa, batez ere marketinaren arloan Artiumen jardueren publizitate eta zabalkundean gastu handiagoa egin delako gertatu da (25.078,04 €), oraingo honetan Zentro-Museoaren bisitarientzako ekimenak burutzeko. Zehazki, 2018an Artiumen Lorategia (19.097,58 €) jarri da abian, eta hori ez zen aurrekontuan aurreikusten.

La desviación negativa, de 24.352,52 euros, se explica por un mayor gasto en publicidad y difusión de las actividades de Artium en las áreas de marketing (25.078,04 €), en este caso relacionado con la realización de iniciativas para los visitantes del Centro-Museo. En particular, en 2018 se ha puesto en marcha el proyecto el Jardín de Artium (19.097,58 €), no incluido en el presupuesto inicial.

Hornidurak epigrafean 3.915,31 euroko desbideratze positiboa gertatu da, argindarraren eta gasaren gastuan aurreztu denari esker.

Zergak epigrafean, Zentro-Museoaren eraikineko Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren kostua jaso da, 2018an 32.972 euro, 2017ko kopuru bera. Zergen kostuen gainerako zatia hondakinen tasa ordaintzeari dagokio (2.141 €).

Komunikazioak epigrafea Internet-konexioari eta telefono-gastuari dagokio, eta 3.327,41 euroko desbideratze positiboa dauka.

Enpresek emandako beste zerbitzu batzuk epigrafean zerbitzuak kontratatzeak eragindako gastuak jaso dira, horien pestazioak ezinbestekoak baitira Artiumek funtzionatzeko. Enpresa horien artean daude Zentro-Museoaren segurtasun- eta zaintza-zerbitzua eta publikoen arretako laguntza-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak. Bidenabar, Bilduma Iraunkorra eta Arte-analisiak eta Liburutegi eta Dokumentazio sailetarako katalogazio eta dokumentazio enpresak kontratatzea ere jaso da, eta baita Hezkuntza Saileko

hezitzaile eta gidak ere. Azkenik, epigrafe honetan Artiumeko hainbat sailen gastuak jaso dira (bulegoko materiala, posta eta mailinga, etab.).

Epigrafe honek 113.860,61 euroko desbideratze negatiboa izan du 2018an, ondoko banakapenarekin:

- Lehendabizi, 2018an Artiumek bere gain hartu ditu ArtiumPoint markaren pean burututako ekintzen kanpoko kostuak. Hori dela-eta, aurrekontuan jasotako 45.000,00 euroko kopurua 175.084,34 euroko gastua izatera igaro da, eta horrek 130.084,34 euroko desbideratze negatiboa esan nahi du. Sarreren kapituluan, 87.000,00 euroko kopurua jasotzen zen aurrekontuan, baina benetako diru-sarrera 231.278,39 eurokoa izan da.
- Diru-sarreren atalean, aurrekontuan jasotako zenbatekoa 87.000,00 eurokoa izan zen, eta benetako diru-sarrera, 231.278,39 eurokoa. Nolanahi ere, benetako marjina gordina (56.194,05 €) aurrekontuan aurreikusitakoa baino gehiago da (42.000,00 €).
- Hezkuntza programen esparruan eskolako taldeen eskariei erantzuteko beharrak 9.050,91 euroko kostu gehigarria ekarri du.
- Babes Pribatuko programara zuzendutako gastuak 2.847,91 euroko desbideratze negatiboa izan du.
- Publikoaren arretarako laguntzaileen zerbitzuaren kostuak 2.290,03 euroko desbideratze negatiboa izan du orokorrean.
- Komunikazioaren kanpoko zerbitzuen kostuak 57.273,46 euroko desbideratze positiboa izan du. Gastu horiek, 2016-2019 plan estrategikoaren garapenarekin lotutako bitartekaritza ekintzarako aurreikusiak, beste proiektu batzuetara bideratu dira (Artiumen Lorategia, hezkuntza-jarduerak…).
- Segurtasun eta zaintza zerbitzuaren kostua 268.662,95 eurokoa izan da, 23.662,95 euroko desbideratze negatiboarekin, deitutako lizitazio publikoen prezio berrien ondorioz.
- Epigrafe honetako gainerako partidetan gertatutako desbideratzeak, nahiz negatiboak nahiz positiboak, ez dira esanguratsuak. 3.197,93 euroko desbideratze negatiboa sortu dute guztira.

Beste gastu batzuk epigrafeak barne hartzen ditu Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazio Zentrorako funts bibliografikoak erosteko gastuak (18.104,79 € aurreikusitako 15.000,00 euroren aldean), Zentro-Museoaren kudeatarako beharrezkoak diren bidaia-gastuez gainera (18.974,93 € 2018an aurreikusitako 20.200,00 euroren aldean).

A6. NARRIADURA ETA EMAITZAK IBILGETUEN ERAGIKETAK

Kopurua (6.144,44 €) 2018an artelanen hiru gordailu partez kentzeari dagokio, eta bat dator ekitaldiko soberakinera eramandako *Kapitaleko dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak kontuan* zenbateko bereko beste ohar batekin.

FUNTS ERAGIKETAK

A7. IBILGETUA GEHITZEA

Memoria ekonomikoaren 6, 8 eta 17.8 oharretan dago ibilgetuaren aldaketen azalpena.

2018an Eusko Jaurlaritzak 55.555,52 euro eman ditu Artiumen Emanaldi aretoa zinema profesionaleko areto gisa hornitzeko proiektuaren 1. fasea finantzatzeko. Partida horren hasierako zuzkidura 75.000 eurokoa da. Horrekin batera, beste 75.000,00 eman ditu ekipamendua erosteko eta Zentro-Museoa dagoen eraikinaren premiazko egokitzapenak egiteko. Kopuru hori osorik erabili da 2018an.

A8. FUNTZIONAMENDU KAPITALA GEHITZEA

Funtzionamendu-kapitala 213.813,43 euroan gehitu da. Hona haren banakapena:

Saldoa	**31.12.2017**	**31.12.2018**	**Desviación**
Zordunak	182.583,07	600.332,48	417.749,41
Epe laburreko finantza inbertsioak	50,00	50,00	0,00
Epe laburreko periodifikazioak	32.052,99	15.955,83	-16.097,16
Gutxiago, epe laburreko zorrak	-6.132,00	-9.379,95	-3.247,95
Gutxiago, epe laburreko hartzekoduna	-587.676,10	-729.415,97	-141.739,87
Gutxiago, epe laburreko periodifikazioak	0,00	-42.851,00	-42.851,00
Guztira	**-379.122,04**	**-165.308,61**	**213.813,43**

Arabako Artium Fundazioaren jarduteko funtsa 2018ko abenduaren 31n positiboa da, 143.740,20 euro (47.409,24 € 2017an).

Saldoa	**31.12.2017**	**31.12.2018**	**Desviación**
Funtzionamenduko kapitala	-379.122,04	-165.309,00	213.813,04
Epe laburreko zorrak taldeko erakundeekin	0,00	0,00	0,00
Izakinak	182.305,21	171.841,17	-10.464,04
Diruzaintza	244.226,07	137.208,03	-107.018,04
Maniobra-funtsa	**47.409,24**	**143.740,20**	**96.330,96**

A9. SARREREN MURRIZTEA, ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKOA

Honako hauek dira ekitaldian sortutako aldakuntzak:

	31.12.2017	**Gehitzeak**	**Ateratzeak**	**Doitzeak**	**31.12.2018**	**Desbidera.**
Kapitaleko dirulaguntza	58.929,14	132.167,35	13.648,59	0,00	177.447,90	118.518,76
Babesleen ekarpenak	0,00	26.262,94	0,00	0,00	26.262,94	26.262,94
Zenbait ekitalditan banatzeko sarrerak	27.551,22	0,00	27.551,00	0,00	0,22	-27.551,00
AFAren lagapenak	52.539.252,48	0,00	433.703,97	0,00	52.105.548,51	-433.703,97
Artelanen dohaintzak	744.883,90	160.500,00	0,00	0,00	905.383,90	160.500,00
Artelanen gordailuak	3.053.904,58	1.876.388,80	1.778.802,69	-6.144,44	3.145.346,25	91.441,67
Guztira	**56.424.521,32**	**2.195.319,09**	**2.253.706,25**	**-6.144,44**	**56.359.989,72**	**-64.531,60**

Artelanen gordailuak kontabilizatzeari dagokionez 2017an ezarritako irizpidea, 2012tik aurrera aplikatutako irizpidearen araberakoa, azalduta dago 8, 17.8, 17.9 eta 21 oharretan.

B. SARREREN AURREKONTUA

FUNTZIONAMENDU ERAGIKETAK

B1. JARDUN PROPIOAREN SARRERAK

a) **Erakundeen ekarpenak**.

2018ko ekitaldian 2.881.329,62 euroko funtsen ekarpena egin dute erakundeek Artiumen jarduerak finantzatzeko (2.987.909,22 € 2017an). Kapitulu honek bi atal ditu:

a. Zentro-Museoa finantzatzeko erakundeen ekarpenak.

Arabako Foru Aldundiak 56.329,62 euro gehiago bideratu ditu Fundazioaren aurrekontuarekin alderatuta. Fundazioaren Patronatuan ordezkaritza duten gainerako erakundeek hasieran aurreikusitako kopuruak bideratu dituzte.

	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbidera.
Arabako Foru Aldundia	1.900.000,00	1.956.329,62	56.329,62
Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco	725.000,00	725.000,00	0,00
Vitoria-Gasteizko Udala	90.000,00	90.000,00	0,00
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa	110.000,00	110.000,00	0,00
Guztira	**2.825.000,00**	**2.881.329,62**	**56.329,62**

b Arabako Foru Aldundiaren laguntzak turismoa sustatzeko jarduerak egiteko.

Kontzeptu honetan 15.000 euro jaso dira. Laguntza hauek Fundazioaren aurrekontuan jaso ziren babesleen sarreren kapituluaren barruan.

b) Babesleen sarrerak.

Kide Korporatiboen Programa Zentro-Museoak duen funtsezko beste tresnetako bat da, Museo-, kultura- eta hezkuntza-jarduerak garatzeko eta bermatzeko, Artiumen kultura- eta dibulgazio-proiektuaren barruan.

Horregatik, bereziki nabarmendu behar da Arabako Artium Fundazioaren babesleek urtez urte Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoaren proiektuarekin erakutsi duten konpromisoa. Horren haritik, eskerrak eman behar zaizkie Fundazioaren Patronatuan dauden Diario El Correo, Fundación Euskaltel, Fundación Vital Fundazioa eta EDP babesle pribatuei.

Babesle pribatuez gain, 2018an Artiumek hainbat Enpresa Babesleren lankidetza eta babesa izan du (Estrategia Empresarial, Diario de Noticias de Álava, EITB eta Cadena SER).

Horiei 23 Erakunde Lankide eta 22 Ohorezko Adiskide gehitu behar zaizkie. 2018an Fundazioak 53 babesle izan ditu guztira. Neurri batean edo bestean, guztiek laguntzen dute proiektu hau gauzatzen.

Hitzarmen mota	**Itxiera 2018**	**Aurrekontua 2018**	**Itxiera 2017**
Patronatukideak	4	4	4
Enpresa babesleak	4	4	4
Erakunde lankideak	23	28	23
Ohorezko Adiskideak	21	24	22
Guztira	**52**	**60**	**53**

2018an Urkide Ikastetxea sartu da Babes programan Ohorezko Adiskide gisa.

Artium modu pribatuan babesteko beste modu bat erakusketak, hezkuntza-jarduerak, argitalpenak edo Zentro-Museoan garatutako beste jarduera batzuk babestea da. Kasu hauetan, Arabako Artiumek antolatutako jarduera ugaritan entitate hauen babes finantzarioa lortu zen:

- Etxepare Euskal Institutua: *Carmen // Shakespeare (Presagios del deseo)* erakusketa babestea.
- Laboral Kutxa: Igandeak proiektuko musika-jarduerak.
- Euskaltel: miaketa-koadernoak.
- Eulen: Zinemaren inguruan… Artiumen Liburutegian.
- Sedena: hezkuntza-jarduerak babestea.

Azkenik, aipatu behar da Artiumek sei Adiskide Laguntzaile dituela 2018an. Horietatik bat (Jimmy Jazz) aurten sartu da programan.

Aurrekontuaren eta egoera errealaren arteko konparazioa taula honetan jaso da:

	Aurrekontua	**Egiazkoa**	**Desbidera.**
Kide Korporatiboak	541.550,00	500.960,00	-40.590,00
Erakusketak eta jarduerak babestea	75.600,00	36.377,08	-39.222,92
Berrikuntzarako sarrerak	30.000,00	0,00	-30.000,00
Guztira	**647.150,00**	**537.337,08**	**-109.812,92**

Erakusketen eta jardueren babesaren atalean 30.000 euro jasotzea aurreikusten zen dirulaguntza eta berrikuntza-proiektuetarako beste diru-sarrera batzuetatik. Azkenean, 2018an ez da horrelakorik lortu.

c) Salmentak eta ohiko beste sarrera batzuk.

Kapitulu honetan sarrerak saltzearen ondoriozko diru-sarrerak eta Artiumek elkarlanean ekoitzitako erakusketak kudeatzeagatik jasotakoak bildu dira:

Hona laburpena:

	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbider.
Leihatilako sarrerak	45.150,00	38.050,06	-7.099,94
Erakusketak kudeatzearen diru-sarrerak	40.600,00	45.833,69	5.233,69
Guztira	**85.750,00**	**83.883,75**	**-1.866,25**

Leihatilako sarreren kapituluan ez da sarreren salmentan aurrekontuan aurreikusitako kopurua lortu (-7.099,94 €), eta Museoko sarrerak izan dira desfasearen arrazoi nagusia. Jardueretarako sarreren salmentagatik jasotzea aurreikusten zena bat etorri da aurrekontukoarekin.

Erakusketak elkarlanean ekoizteari dagokionez, ondoko proiektuak burutu dira:

- Donostiako San Telmo Museoa. Erakusketa: *Espazioaren barrea (Guernica). José Ramón Amondarain.*
- Palmako Casa Solleric. Erakusketa: *Espazioaren barrea (Guernica). José Ramón Amondarain.*
- Rakusketa ibiltaria Araban: *Sortzea, ez errepikatzea.*
- Lleidako Udala. Erakusketa: *Uztailak 38 – Urriak 37. Juan Pérez Agirregoikoa.*
- SCULTO Azoka (Logroño). Erakusketa*: Nire oinak baino harago. Artium Bilduma (eskultura).*
- Compagnie Hors Champ-en ekoizpena Madrilgo Tabakaleran erakusteko. Erakusketa: *Carmen // Shakespeare. Desiraren iragarpenak*

Erakusketen kudeaketagatik 40.600,00 euroko diru-sarrerak izatea espero zen. Azkenean 117.088 euro izan dira, eta desbidertze positiboa 31.304 eurokoa.

Atal honetako diru-sarrerak 83.883,75 eurokoak izan dira guztira, hasieran espero zirenaren antzekoak.

d) **Bazkide eta afiliatuen kuotak**,

Artiumen Adiskideek urtean egindako ekarpenei dagokie. 2018an kontzeptu horri lotutako sarrerak 17.369,00 eruora iritsi ziren; aurrekontuan aurreikusitako 19.270,00 euroren aldean.

B2. BESTE SARRERA BATZUK

Honako hau da laburpena:

	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbider.
Jatetxe-kafetegiaren ustiapena	58.993,64	58.702,57	-291,07
ArtiumPoint	87.000,00	231.278,39	144.278,39
Denda eta liburu-denda	33.800,00	17.659,78	-16.140,22
Beste diru-sarrera batzuk	7.400,00	5.364,75	-2.035,25
Guztira	**187.193,64**	**313.005,49**	**125.811,85**

Jatetxe-kafetegiko diru-sarrerak ustiapen-kanonari dagozkio (40.256,28 euro). Gainerako sarrerak hornidura-gastuen ondorioei dagozkie (argindarra eta ura). Sarrera horien kontrapartida kopuru bereko zenbatekoa da gastuetan; zifrak behera egin du 2018an argindarraren fakturak kostu txikiagoa izan duelako.

ArtiumPointek, ekitaldiak kudeatu eta espazioak alokatzeko negozio-unitateak, 231.278,39 euro lortu ditu 2018an, aurreikusitako 87.000,00 euroren aldean. 2018an fakturatzeko irizpidea aldatu da, Artiumek ebuututako ekitaldi guztiekin lotutako gastuak hartu baititu bere gain, gero bezeroei eratorritako kontzeptu guztiak fakturatuz. Beraz, ArtiumPoint-ekin lotutako gastuen kopurua ere asko handitu da 2018an (Memoria honen A5 puntuan dago azalduta, gastuen aurrekontuaren likidazioa izenekoan).

Con todo el margen bruto final ha sido de 56.194,05 euros, superior en 14.194,05 euros al previsto (42.000,00 €).

Denda eta liburu-dendan ez da lortu aurreikusitako salmenta-helburua, eta 16.140,22 euroko desbideratze negatiboa erregistratu da; 2018an 17.659,78 euroko sarrerak lortu dira, guztira.

Azkenik, *Beste sarrera batzuk* epigrafea zenbait kontzepturi dagokie. Gehienak Fundazioak jasandako gastuak beste batzuei jasanarazteari dagozkie, esate baterako lizitazio publikoen iragarkien fakturazioa eta beste gastu batzuk adjudikatarioei, edota bi garaje-plazaren fakturazioa Fundazioko langileei, besteak beste.

B3. FINANTZA SARRERAK

Los ingresos financieros presupuestados fueron de 150,00 euros, no habiendo obtenido ingresos en 2018, por la nula remuneración de las cuentas y algunos gastos de mantenimiento y comisiones.

Aurrekontuan jasotako finantza-sarrerak 150,00 eurokoak izan ziren; eta 2018an ez da sarrerarik egon kontuen ordainketa ezagatik eta mantentze eta komisioen gastu batzuengatik.

B4. EKITALDIKO SOBERAKINERA ERAMANDAKO KAPITALEKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Alde batetik, Arabako Foru Aldundiak lagatako ondasunen amortizazioaren kopuruaren emaitzak inputatzeari dagokio, 433. 703,97 euroan.

Beste alde batetik (ikusi urteko kontuen memoriako 8, 17.8, 17.9 eta 21 oharrak) artelanen gordailu-hitzarmenen amortizazio-dotazioa ekitaldiko soberakinera bideratzea jaso da 2018an (1.778.802,71 €). 2012tik aplikatutako kontabilitate-irizpidea aldatu izanaren ondorioz.

Azkenik, 2018ko ekitaldian partzialki jasotako artelanen lau gordailuren amortizazio-funtsen baja ekitaldiko soberakinera bideratu da, guztira 6.144,44 euroko kopuruan. Zifra hori bat dator gastuen atalean kopuru berarekin jasotako gastuarekin, *Ibilgetuen besterentzeen emaitza eta narriadura* epigrafearen barruan.

AFAko ondasun-lagapenen amortizazioa	433.703,97
Artelanen gordailu-hitzarmenen amortizazioa	1.778.802,71
Beste ibilgetu-elementu batzuen amortizazioa	7.504,59
Artelanen gordailu-amortizazioen funtsa bertan behera uztea (2018an jas.)	6.144,00
Guztira	**2.226.155,27**

Ekitaldiko amortizazioei dotazioen kopurua eta Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza partida gehituz, emaitza 2.226.155,27 eurokoa da, eta bat dator ekitaldiko emaitzara bideratutako dirulaguntzen zenbatekoarekin.

B5. EZOHIKO SARRERAK

5.363,75 euroko kopurua 2017an ordaindutako istripuen aseguruen kalte-ordainak dira.

FUNTS ERAGIKETAK

B6. BAZKIDEEN EKARPENAK GEHITZEA

Partida honen mugimendua urteko kontuen memoriaren 13 eta 17.1.d oharretan dago azalduta.

B7. IZAKINAK GUTXIAGOTZEA

Partida honen mugimendua urteko kontuen memoriaren 14. oharreAan dago azalduta, eta aurrekontuaren azalpenaren A3 puntuan (gastuen aurrekontuaren likidazioa)

B8. DIRUZAINTZA MURRIZTEA

Diruzaintza 107.018,04 eurotan murriztu da 2017ko abenduaren 31ko saldoari dagokionez.

Saldoa	**2017**	**2018**	**Desbide.**
Diruzaintza	244.226,07	137.208,03	-107.018,04
Diruzaintza	**244.226,07**	**137.208,03**	**-107.018,04**

2018ko abenduaren 31n bukatutako urteko kontuak 74 orrialdeko dokumentu honetan daude eratuta.

PATRONATO DE LA FUNDACIÓN ARTIUM DE ALAVA

Izpta.: Ramiro González Vicente
PRESIDENTEA

Izpta.: Igone Martínez de Luna Unanue
PRESIDENTEORDEA

Izpta.: Bingen Zupiria Gorostidi
KIDEA

Izpta.: Cristina González Calvar
KIDEA

Izpta.: José Luis Cimiano Ruiz
KIDEA

Izpta.: Estibaliz Canto Llorente
KIDEA

Izpta.: José Angel Muñoz Otaegi
KIDEA

Izpta.: Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbigano
KIDEA

Izpta.: Begoña Torres González
KIDEA

Izpta.: María Goti Ciprián
KIDEA

Izpta.: Aitor Markaida Zallo
KIDEA

Izpta.: Koldo Eguren Zendoia
KIDEA

Izpta.: Susana Guede Arana
IDAZKARIA